Gogora zagun Jesusek bere ikasleai saritan egiten zien agur gozoa: *Pakea zuekin.*

Lenengo Otoitzetan

Gogora ditzagun Jesukristok Jaungoikoaren goramenerako ta gure onerako egin zitudan otoitz bero-beroak.

Epistolan

Gogora ditzagun Lege Zaŕeko Guraso ta Igarle Doneak Jesukristo ikusteko izan zituzten gogo bizi-biziak.

Ebanjelioan

Gogora ditzagun Jesukristoren itzaldi ta egintza aŕigari ta osasungariak; Jesukristo beragatik eta bere Beŕionagatik gure odola ta bizia emateko beti gertu egonaz.

Kredoan

Gogora ditzagun gure Siñismen agur-gariŕiko siñiskaiak. Eta *Et inkarnatusean*, Apaizarekin batean belaunikatuta, agurtu zagun Jesukristoren Gizontzea.

Eskeintzan

Gogora zagun Jesukristok Gurutzean egin zuan Eskeintza osasungaria.

Eskuak garbitzean

Gogora zagun Meza ondo eskeñi ta Jauna ondo artzeko bear dan garbitasuna.

Orate fratresean

Eskatu zaiogun Jaungoikoari, Meza au bere goramenerako ta gure ta bere Eliza Donearen onerako izatea.

Sanktusean

Agurtu zagun Jaungoikoaren Aunditasuna, esanaz: Donea, Donea, Donea, Gudarien Jaun eta Jaungoikoa. Zure aintzaz (gloriaz) beteak daude Zeruak eta luía. Goramenak Zeru goietan. Onetsia Jaunaren izenean datoiena. Goramenak Zeru goietan.

Bizien Oroimenean

Otoitz egin zagun bizidun guzien alde, baña batez ere, Meza bereziki eskeintzen zaienen, eta etxeko, adiskide, ongile, Aita

Santu, Gotzai, Apaiz, eta Kristau siñistendun guzien alde.

Mezerdikoan

Apaizak Jesukristoren Soña ta Odola jasotzean, begiramen guziaz agurtu ditza-gun, esanaz:

Soña jasotzean

Agurtzen zaitugu, Jesukristo gure Jau-naren Soin guziz Donea, Gurutzean ilda, gizona erosi zenduena.

Odola jasotzean

Agurtzen zaitugu, Jesukristo gure Jau-naren Odol guziz Bikaña, Gurutzean ixurita, gure gaitzak garbitu zituzuna.

Iñen Oroimenean

Otoitz egin zagun Garbitokiko anima guzien alde, baña batez ere, Meza bereziro eskeintzen zaienen alde.

Pater noster

Gogora ditzagun *Aitagurearen* zazpi eskariak. *Aitagurea* oso otoitz bikaña da, Jesukristok egiña, guri otoitz egiten erakusteko.

Agnus Dei esatean

Maitasun guziaz esan zaiogun Jesukristori:

Jaungoikoaren Bildotsa, luñeko gaitzak kentzen dituzuna, guzaz erukitu.

Jaungoikoaren Bildotsa, luñeko gaitzak kentzen dituzuna, guzaz erukitu.

Jaungoikoaren Bildotsa, luñeko gaitzak kentzen dituzuna, pakea iguzu.

Domine, non sum dignus esatean

Apaltasun guziaz esan zaiogun Jesukristori:

Jauna, ni ez naiz gai, Zu nere baruan artzeko; baña itz bat esan zazu, ta nere gogoia sendatuko da. (Iru bider).

Jaunartzean

Apaizak Jaunartzean, guk ere artu za-
gun, gogoz bada ere. Gogozko Jaunartzea
egiteko, naikoa da, Jauna ondo artu nai-
izatea.

Azken Otoitzak

Emen eskatu zaiegun Zeruko Aingeru-
ta Done guziaz, gure egitekoak ondo egin-
eta zeruratzeko laguntza.

Ite, Missa est esatean

Emen Jaungoikoari, bere mezedez guzia-
katik esker beroak eman-da, uste osoaz
eskatu zaiegun, orain Bera zintzo agurtu ta-
gero Zeruan ikustea.

Mieza ixil ondoan, Aita Santuaren aginduz, egi-
ten diran eskariak.

Iru Agurmari eritar izkuntzan, eta *Salbea* esan-
ondoan:

Ora pro nobis, Sancta Dei Genitrix.

Ut digni efficiamur promissionibus
Christi.

OREMUS

Deus refugium nostrum et virtus, populum ad te clamantem propitius respice; et intercedente gloriosa et immaculata Virgine Dei Genitrice Maria cum beato Joseph ejus Sponso, ac beatis Apostolis tuis Petro et Paulo et omnibus Sanctis, quas pro conversione peccatorum, pro libertate et exaltatione sanctae Matris Ecclesiae, preces effundimus, misericors et benignus exaudi. Per eundem Christum Dominum Nostrum. Amen.

Addatur invocatio: — Sancte Michael Archangele, defende nos in proelio: contra nequitiam et insidias diaboli esto praesidium.—*Imperet illi Deus;* supplices deprecamur: tuque, Princeps militiae coelestis, Satanam aliosque spiritus malignos, qui ad perditionem animarum pervagantur in mundo, divina virtute in infernum detrude. Amen.

Addatur ter: Cor Jesu Sacratissimum, miserere nobis.

Eskari berak euskeraz:

Otoitz egizu gure alde, Jaungoikoaren Ama Donea.

Kristoren aginduen gai egin gaitezten.

OTOITZA

Jaungoikoa, gure babesa ta indaia, zuri deiez dagoan eri oni erukiz begiratu; ta Jaungoikoaren Ama Mari Garbi erugabe ta zorionekoa, bere Senar Jose zorionekoa, zure Apostolu Pedro ta Paulo zorionekoak, eta Done guziak bitarteko dirala, gaiztoak ontzeko ta Eliz Ama Donearen askatasun eta goramenerako egiten di'ugun eskariak, maiteki ta onginaiz entzun. Kristo gure Jaun berberagatik. Alaxe.

Eskari au geitutzen da:

Migel Goiaingeru Donea, burukan lagun zaiguzu; deabruaren sare ta erasoetatik gorde gaitzatzu. — *Jaungoikoak agindu bekio ari jaen!* eskatzen degu. Ta zuk, zerutar gudarien Burua, luñean animak gal-

tzen dabiltzan Satanas eta beste gaizkiñak,
Jaungoikoaren indaréz inpernura bota.

(300 eguneko barkamenak. Leon XIII.)

Jesusen Biotz guziz Donea, guzaz erú-
kitu. (Iru bider.)

(Zazpi urteko ta zazpi berogeiko barkamenak.
Pio X.)



Gurutze-Bidea

GURUTZE-BIDEA

Gurutze Santuaren...
Jesukristo nere Jauna...

Eskeintza

Jesus ona nigatik (1)
Gurutziltzatua,
Damu det biotzetik
Zu naigabetua.

Lenengo Geraldia (Estazioa)

Jesus iltzea erabakitzea.
Agurtu ta goratzen zaitugu, Kristo, Zure Gurutzearen bidez gizona erosi zenduelako.

Pilatok agindu du
Lapuñen artean
Iltzez gogor josteko
Jesus Gurutzean.

Jauna, guzaz efukitu.
Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

(1) Bertso auek Elizondotar Aita Prantzisko Kaputxino Agurgafiaren liburu batetik artuak dira.

Bigarren Geraldia

Jesusek Gurutzea eramatea.

Agurtu ta goratzen...

Sorbaldan arturik
Gurutze astuna,
Gure onginaiz Jesus
Iltzera dijoa.

Jauna...

Aitagurea...

Irugarren Geraldia

Jesus lenengo aldian luñera erortzea. (Luñari
mun egin).

Agurtu ta goratzen...

Luñera erortzen da
Jesus nekaturik;
Jaikitzen laguntzeko
Ez da erukirik.

Jauna...

Aitagurea...

Laugarren Geraldia

Jesus eta Ama Kalbarioko bidean topatzea.
Agurtu ta goratzen...

Agertzen zaio Ama
Jesusi bidean
¡O ze samintasuna
Bien Biotzean!

Jauna...
Aitagurea...

Boskaren Geraldia

Jesusi lagun bat ematea.
Agurtu ta goratzen...

Simon Zirinetara
Artzen dute lagun,
Gurutzea eramaten.
Ikasi dezagun.

Jauna...
Aitagurea...

Seigaren Geraldia

Beronikak Jesusi arpegia garbitzea.
Agurtu ta goratzen...

Pekataria ¿nun da
Zure erukia
Jesusi garbitzeko
Malkoz arpegia?

Jauna...
Aitagurea...

Zazpigarren Geraldia

Jesus bigarren aldian luñera erortzea. (Luñari
mun egin).

Agurtu ta goratzen...

Jesus gure Jabea
Oso auldurikan
Luñera erortzen da
Bigarren aldian.

Jauna...
Aitagurea...

Zortzigarren Geraldia

Jesusek Jerusalemgo alabai itz egitea.

Agurtu ta goratzen...

Jerusalengo alabak

Ez nitzaz negarik,

Negar egin zazute

Pekatuagatik.

Jauna...

Aitagurea...

Bederatzigarren Geraldia

Jesus irugarren aldian luñera erortzea. (Luñari mun egin.)

Agurtu ta goratzen...

Jesus gure Jabea

Oso nekatuta

Irugarren aldian

Luñera jausten da.

Jauna...

Aitagurea...

Amargañen Geraldia

Jesusi jantzia kentzea.

Agurtu ta goratzen...

Jesus gure Jabea

Jantzia kenduta

Kalbarioan dago

Oso lotsatuta.

Jauna...

Aitagurea...

Amaikagañen Geraldia

Jesus Gurutzean jostea.

Agurtu ta goratzen...

Lapur bien erdian

Gurutziltzatuta

Gu askatzeagatik

Jesus arkitzen da.

Jauna...

Aitagurea...

Amabigaren Geraldia

Jesus Gurutzean iltzea.

Agurtu ta goratzen...

Ilda Jesus maitea

Gu zeruratzeko

Betiko zoriona

Guri emateko.

Jauna...

Aitagurea...

Amairugaren Geraldia

Jesusen Soña Amaren besoetan jartzea.

Agurtu ta goratzen...

Jesukristoren Soña

Altzoan artzean

¡O ze samintasuna

Amak Biotzean!

Jauna...

Aitagurea...

Amalagañen Geraldia

Jesusen Soña obiratzea.

Agurtu ta goratzen...

Jesukristoren Soña

Obian jartzean

¡O ze atsekabea

Amak Biotzean!

Jauna...

Aitagurea...

Orain sei *Aitagure*, *Agurmari* ta *Gloria* esaten dira, bost Jesukristoren Zauri Agurgañien oroimenean eta bat Aita Santuaren gogorako, era onetan:

Ezkeréko Oñeko Zauria.

Aitagurea, *Agurmaria* ta *Gloria*.

Eskuiko Oñeko Zauria.

Aitagurea, *Agurmaria* ta *Gloria*.

Ezkeréko Eskuko Zauria.

Aitagurea, *Agurmaria* ta *Gloria*.

Eskuiko Eskuko Zauria.

Aitagurea, *Agurmaria* ta *Gloria*.

Alboko Zauria.

Aitagurea, *Agurmaria* ta *Gloria*.

Aita Santuaren gogorako.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Adoramus te, Christe, et benedicimus tibi.

Quia per Crucem tuam redemisti mundum.

OREMUS

Respice, quaesumus, Domine, super hanc familiam tuam, pro qua Dominus noster Jesus Christus non dubitavit manibus tradi nocentium, et crucis subire tormentum. Qui tecum vivit et regnat, etc.

ZAZPI ITZAK

Jesukristok Gurutzean esan zituan Zazpi Itzak.

1.^a Aita, barka zaiezu, ez dakite zer egiten duten-da.

2.^a Gaur nerekin egongo zera zeruan.

3.^a Andrea, oía or zure Semea; oía or zure Ama.

4.^a Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa, zergatik utzi nazu?

5.^a Egarí naiz.

6.^a Guzia bete da.

7.^a Aita, zure eskuetan jartzen det nere gogoa.



Ama Neketakoa

Andre Mariaren Zazpi Atsekabeak

Gurutze Santuaren...

Aitaren...

Jesukristo nere Jauna, Jaungoiko ta Gizon egiazkoa, nere Egilea, Eroslea, Iraunlea, Indaia, Asiera ta Azkena. Damu det, Jauna, Zu naigabetua; ta artzen det geiago ez naigabetzeko asmoa. Zure Nekaldi ta Eriotzagatik, eta zure Ama Garbi Erugabearen Atsekabeakatik, indazu, Jauna, orain Zu gogo guziaz agurtu ta gero Zeruan ikustea. Alaxe.

Lenengo Atsekabea

Simeonen Iragaria

Ama Atsekabetua! Simeon Igarleak zure Seme Jesus maitearen Nekaldi ta Eriotza iragaritzean, zure Biotzean artu zenduan atsekabe aundiagatik, indazu, Jesusen gogokoa izatea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Bigarren Atsekabea

Ijitorra iges egitea

Ama Atsekabetua! Zure Seme Jesus Auñá Erodesen eskuetatik askatzeko, Ijitorra eramán bear izatean, zure Biotzean artu zenduan atsekabe aundiagatik, indazu, bide txarretatik alde egitea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Irugarren Atsekabea

Jesus galtzea

Ama Atsekabetua! Zure Seme Jesus Auñá Jerusalemén galtzean, zure Biotzean artu zenduan atsekabe aundiagatik, indazu, Jesusekin beti bizitzea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Laugarren Atsekabea

Kalbarioko bidean Jesus arkitzea

Ama Atsekabetua! Zure Seme Jesus maitea Gurutze astunaz Kalbarioko bidean

arkitzean, zure Biotzean artu zenduan atsekabe aundiagatik, indazu, Jesusi zintzo jaraitzea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Boskañen Atsekabea

Maria Gurutze ondoan egotea

Ama Atsekabetua! Zure Seme Jesus maitea Gurutzean iltzean, zure Biotzean artu zenduan atsekabe aundiagatik, indazu, nere griña txararak menderatzea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Seigarañen Atsekabea

Jesusen Soña besoetan artzea

Ama Atsekabetua! Zure Seme Jesus maitearen Soña besoetan artzean, zure Biotzean artu zenduan atsekabe aundiagatik, indazu, Jesus beti biotzean eukitzea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Zazpigarren Atsekabea

Jesusen Soñā obiratzea

Ama Atsekabetua! Zure Seme Jesus maitearen Soñā obiratzean, zure Biotzean artu zenduan atsekabe aundiagatik, indazu, Jesus Zeruan ikustea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

(Orain bakoitzak eskatu beza nai duan esker berezia).

v. Ora pro nobis, Virgo dolorosissima.

r. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMUS

Deus, in cujus passione, secundum Simeonis prophetiam, dulcissimam animam gloriosae Virginis et Matris Mariae doloris gladius pertransivit: concede propitius; ut, qui transfixionem ejus et passionem venerando recolimus, gloriosis meritis et precibus omnium Sanctorum cruci fideliter astantium intercedentibus, passionis tuae effectum felicem consequamur: Qui vivis.



Jose Donea

Jose Donearen Zazpi Igandeak

Gurutze Santuaren...

Aitaren...

Jesukristo nere Jauna, Jaungoiko ta Gizon egiazkoa, nere Egilea, Eroslea, Iraunlea, Indaia, Asiera ta Azkena. Damu det, Jauna, Zu naigabetua; ta artzen det geiago ez naigabetzeko asmoa. Zure Nekaldi ta Eriotzagatik, eta zure Aitaordeko ta Zaindari zintzo Jose Donearen Zazpi Atsekabe ta Zazpi Atsegiñakatik, indazu, Jauna, orain Zu gogo guziaz agurtu ta gero Zeruan ikustea. Alaxe.

Lenengo Atsekabea ta Atsegiña

Jose guziz Doneal Zure Emazte guziz Done ta Garbia aurdun ikustean, zure biotzean artu zenduan atsekabe aundiagatik, eta Espiritu Santuaren lanez Jaungoikoaren Ama egiña izan zala Aingeruak adieraztean, artu zenduan atsegin aundiagatik, indazu, Jaunaren gogokoa izatea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Bigarren Atsekabea ta Atsegiña

Jose guziz Donea! Jesus Auía Belengo Estalpean alako beartasun aundian jaio-tzean, zure biotzean artu zenduan atsekabe aundiagatik, eta Aingeruak, Éregeak eta Artzaiak agurtua ikustean, artu zenduan atsegin aundiagatik, indazu, Jesus gogo guziaz agurtzea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Irugarren Atsekabea ta Atsegiña

Jose guziz Donea! Jesus Auía bere zortzigarren egunean odola ixurtzen ikustean, zure biotzean artu zenduan atsekabe aundiagatik, eta bere Izen gozoa aditzean eta gure Eroslea zala Aingeruak adieraztean, artu zenduan atsegin aundiagatik, indazu, Zerubidean zuzen ibiltzea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Laugarren Atsekabea ta Atsegiña

Jose guziz Donea! Simeon Igarleak Jesusen Nekaldia ta Eriotza iragaritzean,

zure biotzean artu zenduan atsekabe aundiagatik, eta bere Piztuera ta irabaziak iragaritzean, artu zenduan atsegin aundiagatik, indazu, Jesusi zintzo jaraitzea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Boskaren Atsekabea ta Atsegiña

Jose guziz Donea! Jesus Auñá Erodesen eskuetatik askatzeko, Ijitorá eraman bearizatean, zure biotzean artu zenduan atsekabe aundiagatik, eta Ijitoko jainko gezurézkoak erori ta ondatzen ikustean, artu zenduan atsegin aundiagatik, indazu, bide txarretatik alde egitea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Seigarren Atsekabea ta Atsegiña

Jose guziz Donea! Jesus Auñarekin Ijitik Nazaretera biurtzean, ango Agintaria Arkelao zala jakiñik, zure biotzean artu zenduan atsekabe aundiagatik, eta Aingeruak ez bildurtzeko esatean, artu zenduan.

atsegin aundiagatik, indazu, Jaungoikoaren bildurëan eta maitasunean bizitzea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Zazpigarëen Atsekabea ta Atsegiña

Jose guziz Donea! Jesus Auña Jerusale-
nen galtzean, zure biotzean artu zenduan
atsekabe aundiagatik, eta Elizan jakintsuen
erdian arkitzean, artu zenduan atsegin aun-
diagatik, indazu, Jesus Zeruan ikustea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

(Orain bakoitzak eskatu beza nai duan esker berezia.)

v. Ora pro nobis, Beate Joseph.

r. Ut digni efficiamur etc.

OREMUS

Sanctissimae Genitricis tuae Sponsi,
quaesumus, Domine, meritis adjuvemur: ut,
quod possibilitas nostra non obtinet, ejus
nobis intercessione donetur:

Qui vivis et regnas in saecula saeculo-
rum. Amen.



Antonio Donea

Amairu Astearteak

Antonio Doneari

Gurutze Santuaren...

Aitaren...

Jesukristo nere Jauna, Jaungoiko ta Gizon egiazkoa, nere Egilea, Eroslea, Iraunlea, Indaia, Asiera ta Azkena. Damu det, Jauna, Zu naigabetua; ta artzen det geiago ez naigabetzeko asmoa. Zure Nekaldi ta Eriotzagatik, eta zure jaiaile zintzo Antonio Donearen irabaziakatik, indazu, Jauna, orain Zu gogo guziaz agurtu ta gero Zeruan ikustea. Alaxe.

Antonio Doneari Otoitza

Antonio Zorionekoa, Jesusen jaiaile zintzoa, gizonen ongile aundia, zerutar doaiez epaindua; Jesus Auraganako, gure Jaunganako ta Andre Mariaganako zaletasun aundikoa; Jesus Aua besoetan euki ta gozoki laztandua; siñiste txareko ta Elizaren etsai guzien mailua; gaiztoak ontzen, onak

obetzen, beartsuai laguntzen, atsekabetuak poztutzen, eta gizadi guzia zeruratzen alegiñean saiatua; ilak piztu, gaixoak sendatu, gaizkiñak bota, galduak arkitu, itxasoak paketu, kateak uratu, lotuak askatu, gaitzak kendu ta onak ugaritua; Jaungoikoaren eta gizonen begietan aundia; Jaungoikoak Zeru goi-goian jañia; zure laguntza bila joaten diranen artzale ona: indazu, Antonio laztana, orain zuri zintzo jañaitu, Zerubidean zuzen ibili, Jaungoikoa ta lagun urkoa maitatu, ta gero Zeruan Jesus ikustea. Alaxe.

(Iru *Aitagure*, *Agurmari* ta *Gloria* Irutasun guziz Doneari.)

(Orain bakoitzak eskatu beza nai duan esker berezia.)

V. Ora pro nobis, beate Antoni.

R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMUS

Ecclesiam tuam, Deus, beati Antoni, Confessoris tui, commemoratio votiva laetificet: ut spiritualibus semper muniatur auxiliis, et gaudiis perfrui mereatur aeternis. Per Christum Dominum Nostrum. Amen.

Prantzisko Donearen Zauri Agurgarien Bosturēna

Gurutze Santuaren...

Aitaren...

Jesukristo nere Jauna, Jaungoiko ta Gizon egiazkoa, nere Egilea, Eroslea, Iraunlea, Indara, Asiera ta Azkena. Damu det, Jauna, Zu naigabetua; ta artzen det geiago ez naigabetzeko asmoa. Zure Nekaldi ta Eriotzagatik, eta zure jaraile zintzo Prantzisko Donearen Zauri Agurgariakatik, indazu, Jauna, orain Zu gogo guziaz agurtu ta gero Zeruan ikustea. Alaxe.

Ezkerēko Oñeko Zauria

Aita txit maite Prantzisko Donea, zure ezkerēko oñeko Zauri Agurgari ta mintsuagatik, indazu, bide txaretatik alde egitea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Eskuiko Oñeko Zauria

Aita txit maite Prantzisko Donea, zure eskuiko oñeko Zauri Agurgarri ta mintsuagatik, indazu, Zerubidean zuzen ibiltzea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Ezkeñeko Eskuko Zauria

Aita txit maite Prantzisko Donea, zure ezkeñeko eskuko Zauri Agurgarri ta mintsuagatik, indazu, gaitzik ez egitea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Eskuiko Eskuko Zauria

Aita txit maite Prantzisko Donea, zure eskuiko eskuko Zauri Agurgarri ta mintsuagatik, indazu, beti ondo egitea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

Alboko Zauria

Aita txit maite Prantzisko Donea, zure Alboko Zauri Agurgarri ta mintsuagatik, in-

dazu, orain Jesus gogo guziaz agurtu ta gero Zeruan ikustea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

(Orain bakoitzak eskatu beza nai duan esker berezia.)

v. Signasti, Domine, servum tuum Franciscum.

R. Signis redemptionis nostrae.

OREMUS

Domine Jesu Christe, qui, frigescente mundo, ad inflammandum corda nostra tui amoris igne, in carne beatissimi Patris nostri Francisci passionis tuae sacra Stigmata renovasti: concede propitius; ut ejus meritis et precibus crucem jugiter feramus, et dignos fructus poenitentiae faciamus. Qui vivis et regnas in saecula saeculorum. Amen.



Jesukristo ta Prantzisko Donza

Prantzisko Doneari

Bederatziurēna

Gurutze Santuaren...

Aitaren...

Jesukristo nere Jauna, Jaungoiko ta Gizon egiazkoa, nere Egilea, Eroslea, Iraunlea, Indaia, Asiera ta Azkena. Damu det, Jauna, Zu naigabetua; ta artzen det geiago ez naigabetzeko asmoa. Zure Nekaldi ta Eriotzagatik, eta zure jaiaile zintzo Prantzisko Donearen irabaziatatik, indazu, Jauna, orain Zu gogo guziaz agurtu ta gero Zeruan ikustea. Alaxe.

I. Aita txit maite Prantzisko Donea, Jesus bezela, Estalpe batean, askatxo batean, lasto gañean, abere artean jaio zianana, ta zure bizitza guzian Jesusen antzekoa izan zianana: indazu, Jesusen antzekoa izatea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

II. Aita txit maite Prantzisko Donea, zure bataio ondoan, Aingeru batek Gurutze

irudia bizkañean ezaña, ta zure bizitza gu-
zian Gurutze zalea izan zina: indazu,
Gurutze zalea izatea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

III. Aita txit maite Prantzisko Donea,
gaztetan oso alaia ta jolas zalea, baña ga-
rai berean oso garbia ta Jaungoiko zalea
izan zina: indazu, garbia ta Jaungoiko
zalea izatea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

IV. Aita txit maite Prantzisko Donea,
Jaungoikoaren deia gogoz aditu ta zintzo
bete zenduena: indazu, Jaungoikoaren deia
beti gogoz aditu ta zintzo betetzea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

V. Aita txit maite Prantzisko Donea,
Jaungoikoaren goramenerako ta gizonen
onerako gogotik lan egin zenduena: inda-
zu, nik ere alaxe lan egitea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

VI. Aita txit maite Prantzisko Donea,
zure Iru Zuzenbide ta Senidetzak Aita San-

tuaren mendean jañi zitusuna: indazu, Aita Santuaren mendeko zintzoa izatea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

VII. Aita txit maite Prantzisko Donea, Portziunkulako Barkamena, Jesukristogandik, Andre Mariaren bitartez, iritxi zenduena: indazu, nere erú guzien barkamena.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

VIII. Aita txit maite Prantzisko Donea, Jesus beti biotzean zenduena ta Berarekin gurutzetua egon nai izan zenduena; ta Jesussek oso maiteki laztandu, bere Gurutzean gurutzetu, ta bere Bost Zauri Agurgarñiakin apaindua izan zihana: indazu, Jesus beti biotzean eukitzea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

IX. Aita txit maite Prantzisko Donea, Portziunkulan, zure seme maite ta maitetsuz inguruturik, oso gozoki il zihana; ta andik Zerura zuzen-zuzen joan zihana: indazu, orain Jesus gogo guziaz agurtu ta gero Zeruan ikustea.

Aitagurea, Agurmaria ta Gloria.

(Orain bakoitzak eskatu beza nai duan esker berezia.)

v. Ora pro nobis, beate Pater noster Francisce.

R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMUS

Deus, qui Ecclesiam tuam, beati Patris nostri Francisci meritis, foetu novae prolis amplificas: tribue nobis; ex ejus imitatione terrena despiciere et coelestium donorum semper participatione gaudere.

Per Dominum.



Prantzisko Donearen Eriotza

Prantzisko Donearen Eriotzako Elizkizuna

Aita Prantzisko Donea, Kristoren jaiaile zintzoa, Kristoganako ta lagun urkoaganako maitasunean urtua, bere 44-gaïen urtean, 1226-ko Urilaren 4-an, eguzkia sartzean, Portziunkulan il zan, oso gozoki, bere seme maite ta maitetsuz inguraturik; eta zuzen-zuzen joan zan andik Zerura, Garbitokian sartu gabe, zorionez beterik, betiko guzian bere Maitea ikustera.

Egun eta ordu berean, bere seme maitetsuak Elizkizun jaieratsu bat egiten dute, era onetan:

1. Superior indutus Amictu, Superpelliceo, Stola et Pluviali albi coloris, praecedentibus Thuriferario cum thuribulo et navicula ac duobus Ceroferrariis cum candelis accensis, quos sequuntur Fratres bini per ordinem, procedit ad Sacellum Seraphici Patris aut quo ipsius Reliquia est exposita.

2. Ibi facta ab omnibus debita reverentia, omnes in genua procumbunt. Brevem post moram Sacerdos cum Ministris surgit, incensum ponit in thuribulo et more solito benedicit: hinc, facta pro-

funda capitis inclinatione, Celebrans duplici ductu sacram Reliquiam thurificat.

3. Quo facto omnes surgunt, et maiori quo fieri potest devotione et solemnitate canitur sequens Antiphona cum Psalmo.

ANTIPHONA

O sanctissima anima, in cujus transitu coeli cives occurrunt, Angelorum chorus exultat, et gloriosa Trinitas invitat, dicens: «Mane nobiscum in aeternum».

PSALMUS 141

Voce mea ad Dominum clamavi: * voce mea ad Dominum deprecatus sum.

Effundo in conspectu ejus orationem meam: * et tribulationem meam ante ipsum pronuntio.

In deficiendo ex me spiritum meum: * et tu cognovisti semitas meas.

In via hac, qua ambulabam: * absconderunt laqueum mihi.

Considerabam ad dexteram, et videbam: * et non erat qui cognosceret me.

Periit fuga a me: * et non est qui requirat animam meam.

Clamavi ad te, Domine, * dixi: Tu es spes mea, portio mea in terra viventium.

Intende ad deprecationem meam: * quia humiliatus sum nimis.

Libera me a persequentibus me: * quia confortati sunt super me.

Educ de custodia animam meam ad confitendum nomini tuo: * me expectant justi, donec retribuas mihi. Gloria Patri, etc.

4. Postremum autem versum: **Educ de custodia**, sub quo Seraphicus Pater, Psalmum recitans, expiravit, magna devotione et gravitate atque magis elevata voce cani oporteret. Dicto **Gloria Patri**, repetitur Antiphona *O sanctissima anima*, omnes genuflectunt, ac quinque *Pater, Ave et Gloria* recitant: quibus finitis, iterum surgunt et sequentem Antiphonam subiungunt.

ANTIPHONA

Salve, S. Pater, patriae lux, forma Minorum, virtutis spectaculum, recti via, regula morum, carnis ab exilio duc nos ad regna polorum.

Postea genuflectunt omnes et duo Cantores cantant:

v. Franciscus pauper et humilis coelum dives ingreditur.

R. Hymnis coelestibus honoratur.

Tum Celebrans surgit et subiungit:

OREMUS

Deus, qui hodierna die animae beati Patris nostri Francisci aeternae beatitudinis praemia contulisti: concede propitius, ut qui ejus migrationis memoriam piis affectibus celebramus, ad eiusdem beatitudinis praemia feliciter pervenire mereamur. Per Christum Dominum nostrum. R. Amen.

v. Dominus vobiscum:

R. Et cum spiritu tuo.

v. Benedicamus Domino:

R. Deo gratias.

5. Tunc Sacerdos surgit, Reliquiam accipit, et conversus ad Fratres et populum omnes cum illa benedicit nihil dicens. Quo facto, omnes devote S. Reliquiam osculantur, dum Celebrans dicit:

Per intercessionem S. P. N. Francisci Confessoris liberet te Deus ab omni malo. Amen.

6. His finitis, Sacerdos cum Ministris ad Sacristiam revertitur.

Prantzisko Donea, Kristo Beía

Aita Prantzisko Donea, bere jaiotza ari-
gañi ta bizitzako egintza guzietan Kristoren
antzekoa izan zana, **Kristo Beía** deitua
da: **Alter Christus.**

Prantzisko Donea, Kristo bezela, Jaun-
goikoak ala eratuta, estalpe batean, aska-
txo batean, lasto gañean, abere artean jaio
zan; eta bere jaiotzan, Kristoren Jaiotzan
bezela, izar beñi baten antzeko argi eder
bat agertu zan eta Aingeru soñu gozo-go-
zoak aditu ziran.

Prantzisko Donea jaio zan Estalpea,
gero Otoiztegi biurtua izan zan; eta orain
ere Otoiztegia da, italieraz *San Francesco
il Piccolo* deitua, au da, *Done Prantzisko
Txikia*. Otoiztegi onen ate gañean dago
latiñezko idazti au jañita:

*Hoc oratorium fuit bovis et asini sta-
bulum.*

*In quo natus est Franciscus, mundi
speculum.*

Au da:

«Otoiztegi au idiaren eta astoaren estalpea izan zan.

Prantzisko, munduaren ispilua, ementxe jaiu zan.»

Prantzisko Donea Asisko *Katedralean* bataiatua izan zan. Bere Aita besoetakoa beriz. Aingeru bat izan zan, bataio aurrean arigarrizko eran agertu, ta bataio ondoan gisa berean ezkutatu zana, bere oñaztarna *Bataio-Iturri* ondoko marmol batean utzita. *Bataio-Iturria* ta Aingeruak bere oñaztarna utzitako marmola, orain ere antxe ikusten dira. *Bataio-Iturri* onetan dago italierazko idazti au jarita:

Questo é il Fonte dove fu battezzato il Seraphico Padre San Francesco.

Au da:

«Iturri onetan izan zan bataiatua Serapindar Aita Prantzisko Donea.»

Prantzisko Donea, bataiatuta, etxera biurtu ondoan, beste Aingeru batek, Andre Pika jaieratsuari, Prantzisko Donearen amari, eskatu zion jarren! aur bataiatu beria

eskuetan artzen uzteko. Ta Andre Pikaren baimenaz, Prantsisko eskuetan artuta, Simeon Agurgariak Jesus Auía bezela, agurtu ondoan, amari biurtu zion, esanaz: *Andrea, aur au aundia izango da Jaunaren begien aurrean. Ilunpetako agintariak saiatuko dira aur au galtzeko lanean. Ondo zaindu zazu, ba, beren eskuetan erori ez dedin.*

Au esandakoan, Aingeruak alde egin zuan. Andre Pika alegiñean saiatu zan Prantzisko ondo zaintzen. Ilunpetako agintariak ere saiatu ziran Prantzisko galtzeko lanean. Baña Prantzisko, Jaunaren lagunizaz, beti garailari irten zan.

Prantzisko Donea oraindik gaztea zala, Asisko beartsu on batek, kaleetan oju egiten zuan: *Pax et bonum: Pakea ta zoriona;* ta Prantzisko ikustean, bere gañeko soñekoa kendu ta luíean zabaltzen zuan, Prantzisko gañetik igaro zedin, esanaz: *Gazte au leku guzietan izango da agurtua.*

Prantzisko Doneak, Jaungoikoagana oso biurtuta, luíeko ondasun eta atsegiñak utzi ta bere Anaidia jartzean, amabi lagun autu zituan; Kristo gure Jaunak bere Eliza

jartzean amabi Apostolu autu zituan bezela. Ta Kristoren Apostoluetatik batek, Judas zorigaiztokoak, soka bat lepoan jarita, bere burua urkatu zuan bezela; Prantzisko Donearen Lagunetatik batek, Kapelatar Joan zorigaiztokoak, gisa berean soka bat lepoan jarita, bere burua urkatu zuan. Eta Kristoren beste Apostolu guziak donetasun aundikoak izan ziran bezela; Prantzisko Donearen beste Lagun guziak ere donetasun aundikoak izan ziran. Eta Kristo gure Jaunak bakardade batean berogei eguneko baraua, ezer ere artu gabe, egin zuan bezela; Prantzisko Doneak ere gisa berean egin zuan, ogi opil erdi bat baizik artu gaberik. Ogi opil erdi ori beriz, Kristo añekoa ez izateagatik artu omen zuan. Eta Kristoren naia, Jaungoikoaren naia egitea izan zan bezela; Prantzisko Donearen naia ere, Jaungoikoaren naia egitea izan zan.

Prantzisko Donea, maitezko Serapin gartsua, Kristo Gurutzetuaganako maitasunean urtua, Kristo beti biotzean zuena ta Kristorekin gurutzetua egon nai izan zuana, bere jaiotza arigarían eta bizitzako egintza

guzietan Kristoren antzekoa izan zana, bere eriotza zorionekoa baño bi urte lenago, Alberna-Mendian, Kristoren Nekaldia gogoratzen ari zan bitartean, Kristo Gurutzetuak oso maiteki laztandu, bere Gurutzean gurutzetu, bere Bost Zauri Agurgariakin apaindu, ta bere Iduñi eder-edeña egiña izan zan.

Prantzisko Donea, Kristoganakako maitasunean urtua, Portziunkulan il zan, oso gozoki, bere seme maite ta maitetsuz inguraturik, eta zuzen-zuzen joan zan andik Zerura, Garbitokian sartu gabe, zorionez beterik, betiko guzian bere Maitea ikustera.



Belengo Estalpea

Prantzisko Donea ta Belengo Estalpea

Gizona eginda lau mila urtera, Jesus, gure Jaun eta Jaungoikoa, Zeru-luñen Egiñea, Irutasun Donearen bigarren Laguna, Espiritu Santuaren lanez Andre Mariaren erai garbietan Gizon egiña, Belengo Estalpean jaio zan, askatxo batean, lasto gañean, abere artean, gu deabruaren mendetik askatu, ta Jaungoikoaren seme, bere Anai ta Zeruko eregegai egiteagatik.

Aita Prantzisko Donea, Jaungoikoak alaraturta, Jesus bezela, estalpe batean, askatxo batean, lasto gañean, abere artean jaio zan; Jesus-Aur zalea izan zan; eta Eguberietan pozez beterik ibiltzen zan, esaten: Nik nai nuke Eguberietan gizadi guzia poz-tutzea; ta Eregeak, Agintariak, eta aberatsak garia ta aragia kale ta bideetan ugari botatzea; egun pozgari onetan, beartsuak, abereak, eta egaztiak ere naikoa jan al dezaten. Bera izan zan Belengo Estalpe Irudia

egitea, orain Eliza guzian eta batez ere Prantziskotañen artean, alako jaiera aundiaz egiten dana, asmatu, ta lenengo egin erazi zuana. Au 1223-gañen urtean gertatu zan.

Prantzisko Doneak, egi-egiz, 1223-gañen urtean, Belengo Estalpe Irudia egitea asmatu, ta artarako baimena Aita Santu Onorio III-gañenagandik iritxi ondoan, bere adiskide aundi Joan Belita zaldunari, Gretzioko uriko zaldun aberatsa ta biotz onekoa zanari, esan zion: Ene maite-maitea, nik nai nuke aurtengo Egubeñiak Gretzion igarotzea, ta antxe Jesusen Jaiotza beritzea. Oretarako eskatzen dizut, Gretzio ondoko basoan Belengo Estalpe Irudi bat egiteko, ta antxe, askatxo bat, lastoa, idia ta astoa jartzeko, guzia Belenen bezela.

Joan Belita zaldunak Prantzisko Donearen esana oso gogoz egin zuan. Eta Egubeñi gabean, Prantzisko Donea ta bere Anaiak, Joan Belita zalduna ta Gretzioko ta inguruko erietako kristau jaierratsu asko, guziak, jaiera aundiaz, Elizinguruan bezela, argiak eskuetan eraman eta abesti ederak abestuaz, Belengo Estalpe Irudira joan

ziran. Ara eltzean, egiazko Jesus Auía, antxe, askatxoan, lasto gañean etzinda, lo bezela, zegoana, Prantzisko Doneak, askatxo auíean auzpeztuta, gogo guziaz agurtu zuan. Orduan Jesus Auíak, berealaxe esnatuta, oso pozik eta maiteki, Prantzisko laztandu zuan.

Joan Belita zaldunak gero itz siñistuaz esan zuan, berak ikusi zuala Jesus Auía, antxe, askatxoan, lasto gañean etzinda, lo bezela, Prantzisko Doneak, askatxo auíean auzpeztuta, agurtu zuanean. Eta baita ere gero, Jesus Aur berbera, esnatuta, oso pozik eta maiteki, Prantzisko laztantzen ibilizanean.

Gero, Prantzisko Doneak, Gaberdiko Mezan Diakonatu, ta oso gozoki ta sutsu Beriona (Ebanjelioa) abestu ondoan, itzaldi eder-eder bat egin zuan, Jesusen jaiotza ta Bere guganako maitasun geiegia azalduaz, bere aditsaleak pozezko negárez urturik zeuden bitartean; eta Jesus Auía, Belengo Auía, Jesus, Belen, esaten zuan bakoitzean, gozotasunik gozoena somatzen zuan bere biotzean eta bere ezpañetan.

Belengo Estalpe Irudia egon zan lekuan, Jaungoikoak gero arigaritasun aundiak egin zituan. Oregatik, leku onetan laster egin zuten Otoiztegi bat, orain ere antxe ikusten dana.

Belengo Estalpe Irudia egon zan Otoiztegian, jai eder-ederak egin ziran 1922-ko Eguberietan, bere **Zazpigarren Eunkidan**, Kardenal jaun batek Gaberdiko Meza abestuaz.

Poztu gaitezten, ba, Eguberietan, gure Aita Prantzisko Donea bezela. Izan gaitezten, bera bezela, Jesus Aur zaleak. Orain Jesus gogo guziaz agurtzen badegu, gero Zeruan beti ikusiko degu.

Prantzisko Donea, Jesusen jañailleen ispilua

Alakoketar Done Margarik, egun batean, Jesusen Biotzaren maitasun geiegia ta edertasun ariñariak gogoratzean, oso ariñurik, Jesusi eskatu zion jañen! bere Biotza maitatu, ta Berari jañaitzeko biderik onena erakusteko.

Jesusek orduan, Prantzisko Donea, bere Bost Zauri Agurgariakin apaindua, Done Margariri aurrean jañi, ta esan zion: **Ona emen nere jañailleen ispilua.**

Egi-egiz, Prantzisko Donea Jesusen jañaille zintzo-zintzoa izan zan; bere jaiotza ariñarian eta bizitzako egintza guzietan Jesusen antzekoa; Jesus beti biotzean zuena; Jesusekin gurutzetua egon nai zuena; bere eriotza zorionekoa baño bi urte lenago, 1224-ko Agoñaren 14-an, Gurutze Donearen Jasoerako egunsentian, Alberna-Mendian, Jesusen Nekaldia gogoratzen ari zan bitartean, Kristo Gurutzetuak, sei egodun Serapin gartsu baten irudian agertuta, oso

maiteki laztandu, bere Gurutzean gurutzetu, bere Bost Zauri Agurgariakin apaindu, ta bere Irudi eder-edeña egiña.

Prantzisko Doneak, Jesukristo gure Jau-nak bere Gizontzean, Jaiotzan, Bizitzan, Nekaldian, Eriotzan eta Aldareko Sakra-mentua asmatu ta jartzean, agertu zigun maitasun geiegia ta guk Berari agertzen diogun ostasuna, ikustean, oso ariturik eta negaiez urturik, esaten zuan:

¡Maitasuna ez da maitatua!

¡Maitasuna ez da maitatua!

Prantzisko Donea, maitezko Serapin-garitsua, Jesusen jaiaile zintzoa, bere jaio-tza arigarrian eta bizitzako egintza guzietan Jesusen anzekoa, Jesusganako ta lagun-urkoaganako maitasunean urtua, bere 44-garren urtean, 1226-ko Urilaren 4-an, Por-tziunkulan il zan, oso gozoki, bere seme maite ta maitetsuz inguraturik; eta zuzen-zuzen joan zan andik Zerura, Garbitokian sartu gabe, zorionez beterik, betiko guzian bere Maitea ikustera.

Prantzisko Donearen

Zauri Agurgariak

Prantzisko Donea, bere jaiotza arigarian eta bizitzako egintza guzietan Kristoren antzekoa, Kristo Gurutzetua beti biotzean zuena ta Kristorekin gurutzetua egon naizuen, bere eriotza zorionekoa baño bi urte lenago, 1224-ko Agoñaren 14-an, Gurutze Donearen Jasoerako egunsentian, Alberna-Mendian, Kristoren Nekaldia gogoratzen ari zan bitartean, Kristo Gurutzetuak, sei egodun Serapin gartsu baten irudian agertuta, oso maiteki laztandu, bere Gurutzean gurutzetu, bere Bost Zauri Agurgariakin apaindu, ta bere Irudi eder-edeña egiña izan zan.


Prantzisko Donea orduan, oso bestiruditua, argia zeriola, *Kristo Beña* bezela, Albernatik jetxi zan. Bere esku-oñak iltzez zulatatuak bezela gelditu ziran, gañeko aldetik iltze aundi buru beltz biribilak, eta baruko aldetik iltze mutur zapalduak agiri zirala. Bere Alboko Zauria erdi-idikia ze-

goan, odola ugari zeriola, bere jantzia buztitzen zuela.

Prantzisko Doneak, apaltasunez, bere Zauriak eskutatu nairik, beti estaliak erabiltzen zituan. Baña Jesukristok, bere jañaile zintzo ta apal au goratzeko, agertu egin zituan, Zauri Agurgarri auen bidez arigartasun aundiak egiñaz.

Prantzisko Donearen Zauri Agurgarriak, Done aundi au oraindik bizi zala, bere Anai askok, Kardenal jaun batzuk, eta Aita Santu Alejandro IV-garriak ikusi zituzten, gero itz ziniñistiaz esan zuten. Eta Done au il ondoan beriz, bere Anaiak, era guzietako Kristau askok, eta Done Klarak eta bere Aizpak ere ikusi ta agurtu zituzten.

Prantzisko Donearen Zauri Agurgarrien Jaia, Agoñaren 17-an egiten da. Jai onetan Barkamen Osoa irabazten da, Askamen Osoa artuaz. Eta Jai onetan Askamen Osoa artzeko erarik ezpadago, uringo Igandean artu leike. Gañera, Jai onetan zazpi urteko ta zazpi berogeiko barkamenak ere irabazten dira, Senidetzako Eliza ikusi ta antxe Aita Santuaren gogorako otoitz egiñaz.



Apari Donea

GURE JAUNA

Aita Prantzisko Donea, maitezko Serapin gartsua, Gure Jaun zalea izan zan; saritan eta luzaro egoten zan, Aldare auñean auzpeztuta, Gure Jauna agurtu ta goratzen. Berak, Jesukristok bere Gizontzean, Jaio-tzan, Bizitzan, Nekaldian, Eriotzan eta Aldareko Sakramentua asmatu ta jartzean, agertu zigun maitasun geiegia ta guk Berrari agertzen diogun ostasuna, ikustean, oso ariturik eta negaréz urturik, askotan esaten zuan: **Maitasuna ez da maitatua! Maitasuna ez da maitatua!**

Jesukristo, Irutasun guziz Donearen bigarren Laguna, gu zeruratzeagatik Zerutik jetxi, Andre Mariaren erai garbietan Gizon egin, eta ogeita amairu urtean emen, ilak piztutzen, gaixoak sendatzen, gaizkiñak botatzen, gose-egariak asetzen; itxuai ikustea, goñai entzutea, mutuai itza, elbarñai ibiltzea ematen; atsekabetuak poztutzen, eta beste era guzietako on aundiak egiten ibili ondoan; Berak, luña utzita, Zerura

biurtu bear zuanean; gu, erbeste onetan, umezurtzak bezela, ardiak artzai gabe bezela, uzteko biotzik izan etzuelako; emen gure egiazko Aita, Artzaia, laguna, janaria, edaria, indaia, poza ta atsegiña, luia aitu arte izateagatik, eta garai berean gure esker onak eta agurak artzeagatik, Aldareko Sakramentu guziz Santua asmatu ta jañi zuan; Sakramentu onetan, ogi-ardoaren azalpean, arigarizko eran, bere Burua oso-osorik utziaz.

Jesukristok bazekian, Aldareko Sakramentu agurgari ta maitagari au jartzean, askok, zorionean, Sakramentu onetan, Berra saritan ikusi, ondo artu, ta gogoz agurtu ta goratuko zutela. Baina baita ere bazekian, beste askok, zoritxarean, gutxitan ikusi, gaizki artu, ta naigabetuko zutela. Ta beste askok, azkenik, aintzakotzat artu gabe, ezer ezpalitz bezela, maitezko Sakramentu onetan, bakar-bakarrik utziko zutela. Baina, ala ta guziz ere, guganako maitasun geiegiagatik, Sakramentu au jañi egin zuan.

Onetarako, Jesukristo gure Jaunak bere Nekaldi ta Eriotza aurreko gabean, Jerusa-

lengo Apaltokian, Pasko bildotsa ta legami gabeko ogia bere Apostoluakin batean jan, eta Apostoluai oso maiteki oñak garbitu, ta itzaldi sutu ta eder-eder bat egin ondoan; maian gelditu zan ogi bat bere esku agurgarietan artu, begiak Zeruruntz jaso, Aita Betikoari eskerak eman, onetsi, bere Soin, Odol, Gogo ta Jainkotasunean biurtu, ta Apostoluai eman zien, esanaz: *Artu, ta jan guziok emendik: Auxe da ordea nere Soña*. Gero, gisa berean ardo ontzia bere esku agurgarietan artu, begiak Zeruruntz jaso, Aita Betikoari eskerak eman, bere Odol, Soin, Gogo ta Jainkotasunean biurtu, ta Apostoluai eman zien, esanaz: *Artu, ta edan guziok emendik: Auxe da ordea nere Odola*. Gero, Apostolu berai esan zien: **Egin zazute au nere oroimenean.**

Era onetan, Jesukristo gure Jaunak, Jaungoiko ta Gizon egiazkoak, gure Egi-leak, Erosleak, Iraunle guzialtsuak, Aldareko Sakramentua jari zuan; Apostoluak Apaiz egin zituan; eta Apostoluai, ta beren ondorengo Apaiz guziaz, Sakramentu aundi au beritzeko eskubide osoa eman zien.

Oregatik, Apaizak Mezerdiko itzak esanaz batean, Aldareko Sakramentu aundia beritu egiten da; ogia ta ardoa Jesukristoren Soin, Odol, Gogo ta Jainkotasunean biur-tzen dira; Sakramentu aundi onetan Jesukristo oso-osorik gelditzen da, bere irabazi guziakin batean, eta baita ere bere Aita Betiko ta Espiritu Santuarekin batean; Aita, Semea ta Espiritu Santua, Jaungoiko bat bakaña ta berbera dirata.

Aldareko Sakramentua, da, Jesukristoren Sakramenturik aundiena, bikañena, ari-gañena, jainkozkoena. Ezkutukirik (misteriorik) aundiena, Jaungoikoaren oroimena, gozotasunik gozoena, gizonentzako dagoena. Ondasun,danen iturña, Ondasun berbera, Jaungoiko ta Gizon egiazkoa, onentzat bizitza, gaiztoentzat eriotza.

Saiatu gaitezen, ba, Gure Jaun zaleak izaten; Jesus, Aldareko Sakramentuan, saritan ikusi, ondo artu, ta gogo guziaz agurtu ta goratzen. Orain ala egiten badegu, gero Jesus, Zeruan, zorionez beterik, betiko guzian ikusiko degu.

BARKAMENAK

Barkamenak, batzuk Osoak, eta beste batzuk Ez-Osoak izaten dira.

Barkamen Osoak, éru guzien zoñak ordaintzen ditu. Barkamen Osoa irabazita, geiago éruk egin gabe, iltzen dana, zuzen-zuzen joango da Zerura, betiko zorionera. Ta Barkamen Osoa beñiz, Garbitokiko anima batentzat irabazten bada, anima ori be-realaxe joango da Zerura, Jaungoikoaren naia ala bada.

Barkamen Ez-Osoak, beñiz, éru guzien zoñak ez ditu ordaintzen. Baña, bai, gutxitu.

Irugañendañak, *Barkamen Oso*, ta *Ez-Oso* asko irabazi ditzakete, beren Zuzenbidean argi ikusiko dutenez. Eta Barkamen guzi oiek, eriotzako orduko Barkamen Osoa izan ezik, Garbitokiko animentzat ere irabazi ditezke.

Saiatu gaitezen, ba, Barkamenak irabazten, naiz guretzat, naiz Garbitokiko animentzat, artarako bear dana egiñaz.



Portziunkulako Barkamena

Portziunkulako Barkamena

Portziunkula, Kristaudi guzian ain ots-aundikoa, Asis ondoko Eliza bat da. Prantzisko Doneak Portziunkula asko maite izan zuan. Bere Anaidiko lenengo Alkartegia (Konbentua) antxe jaíri zuan; Portziunkulako Barkamena, esan al baño geiago Kristau ta Garbitokiko anima zeruratua, antxe iritxi zuan; bere azkenengo arnasa antxe eman zuan, oso gozoki, bere seme maite ta maite-tsuz inguraturik; eta andik egaz egin zuan zuzen-zuzen Zerura, Garbitokian sartu gabe, zorionez beterik, bere Maitea ikustera.

1221-ko Urileko gau eder batean, beste askotan bezela, Prantziskok Portziunkula ondoko basoan gizonak zeruratzeko otoitz egitean, Aingeru baten itz gozoa aditu zuan, ziona: **Prantzisko, Elizara, Elizara.** Prantziskok orduan Portziunkulako Elizara jo zuan, eta an ikusgaíri arígaíri bat ikusi zuan: Jesus eta Maria, Aldare gañean jaírita, zorionez beterik, Aingeru ederez inguraturik.

Prantziskok orduan, Aldare aurrean auzpeztuta, Jesukristo agurtu zuan; eta Jesukristok orduan Prantziskori oso gozoki esan zion: **Prantzisko, badakit, zuk eta zure Anaiok alegiñak egiten dituzutela gizonak zeruratzeko. Orain, ba, eskatu zazu nai dezuna, emango zaitzuta. Zuluñeko argia ta nere Elizaren euslea izateko autua zera ordea.**

Prantziskok orduan Jesukristori eskatu zion ¡aíren! ondo damutu, aitortu, ta Portziunkulako Elizan zartzen ziranai, beren erú guzien zoñak barkatzeko. Ta gero Andre Mariari eskatu zion ¡aíren! gai artan bere bitartekoa izateko. Andre Mariak orduan bere bitartekotasuna egin zuan; eta Jesukristok orduan Prantziskori oso gozoki esan zion: **Prantzisko, asko eskatzen dezu; baña oraindik geiago emango zaitzu. Eskatu dezuna, emana daukazu. Baña zoaz nere Ordezkoagana (Aita Santuagana), nik emandako Barkamen au ontzat emateko eskatzera. Ba nere Ordezkoa da bakar-bakarrik**

luñean guzia lotzeko ta askatzeko eskubidea daukana.

Au esandakoan, ikusgarí arígarí ura ezkutatu zan; Jesus eta Maria, beren Aingeruakin batean, Zerura biurtu ziran; Frantisko beriz oso poztua ta indartua gelditu zan.

Urango goizean-goiz, Prantzisko Aita Santuagana (Perusara) joan zan, Jesukristoren agindua egitera. Aita Santuak Prantzisko oso ondo artu zuan; Portziunkulako Barkamena, Jesukristok emana, oso ontzat eman zuan; eta Portziunkulako Barkamen au irabazteko garaia izentatu zuan, au da, Abuztuko lenengo eguneko bezperetatik bigarren gabera artea.

Prantzisko gero Portziunkulara biurtu zan. Portziunkulako Barkamenaren beripozgaría laster zabaldu zan leku guzietara ta leku guzietan izan zan oso ondo artua. Ta Portziunkula egunean, leku guzietatik lagun asko joaten ziran Portziunkulara, Barkamen aundi au irabaztera. **Beñeun miñia** (200.000) inguru lagun joaten omen ziran Senatar Bernardino Donearen garian.

Portziunkulako Barkamena, geroago, Aita Santuaren aginduz, Prantziskotar Eliza guzietara izan zan zabaldua. Ta oraiñago beriz, Aita Santuaren aginduz, Parokietara, ta beste Eliza ta Otoiztegi askotara ere zabaldua izan da. Gañera, orain, Aita Santuaren aginduz, Abuztuko lenengo eguerditik bigarren gaberdi arte irabazten da. Ta, ala bear bada, Portziunkula ondoko Igandera aldatu leike. Baña Igande ontara aldatu ezkerro, Portziunkula egunean ez da irabazten. Egun bietatik batean bakarrik irabazi leike ordea.

Portziunkulako Barkamena irabazita, eru beririk gabe, iltzen dana, zuzen-zuzen joango da Zerura, Garbitokian sartu gabe. Ta Barkamen au beriz Garbitokiko anima batentzat irabazten bada, anima ori berealaxe joango da Zerura, Jaungoikoaren naia ala bada.

Portziunkulako Barkamena Elizikuste guzietan irabazi leike. Lenengoa, bakoitzak beretzat irabazi bear du; beste bakoitza beriz Garbitokiko anima batentzat irabazi leike.

Portziunkulako Barkàmena irabazteko egitekoak

Aitortzea, Jaunartzea, Elizikustea, Aozko Otoitza. Aitortzea egin leike Barkamen aurreko zorizi egunen barruan; Jaunartzea beriz Barkamen aurreko egunean; ta naiz bata naiz bestea Barkamen ondoko zorizi egunen barruan. (Lege Beriko 931-garen Agindua).

Elizikusteak egiazko sartu-irtenak izan bear dute.

Aozko Otoitza, naikoa da, bost Aita-gure ta Agurmari, edo beste olako bat esatea. Ez dago ordea otoitz izentaturik.

Saiatu gaitezen, ba, Portziunkulako Barkamena irabazten, naiz guretzat, naiz Garbitokiko animentzat. Guretzat, gure eruguzien zoren barkamenerako. Garbitokiko animentzat, anima oiek Zerura bialtzeko.

GARBITOKIA

Garbitokia Jaungoikoak beste bizitzan jaritako leku oñazetsu bat da, bizitza onetatik bestera, beren erú txikien zoñak Jainkozko zuzentasunari ordaindu gabe joan diran animak, antxe oso ordainduta, Zerura joan di!ezen.

Zerua oso leku garbia da, alaia, zori-
onekoa, ondasun guziak dituená, gaitzik
batere ez duena. Zeruan dago egiazko on-
tasuna, maitasuna, anaitasuna, alkartasuna,
pakea, gozotasuna, zorion osoa, betikoa,
luñean alpeñik bilatzen dana. Zeruan ez
dago, ta iñoiz ere ez da egongo, loirik, mi-
ñik, atsekaberik, bekaitzik, goñotorik, gose-
egañirik, otz-bero geiegirik, eta beste iño-
lako gaitzik.

Bañá bizitza onetatik Zerura zuzen joa-
teko, beañekoa da, erurik ez egitea; edo
egindako erú guzien zoñak, ementxe oso
ordaintzea. Erurik ez egitea, Andre Mari
txit Doneak, Jose Doneak, Joan Bautista
Doneak, Isaias Doneak, eta beste Done

aundi batzuk bezela; edo egindako erú guzien zoñak, ementxe oso ordaintzea, miloika Lekukok (Martirik) bezela, beren odola ta bizia Jesukristogatik emanaz; edo gure Aita Prantzisko Doneak eta beste Done aundi batzuk bezela, aitortze ona egiñaz, edo damutasun osoa artuaz.

Bestela, bizitza onetatik Zerua joateko, beañoa da, Garbitokian sartzea, ta egindako erú guzien zoñak, antxe oso ordaintzea.

Ta baliteke, Garbitokiko anima gaixoak, antxe, luzaro, urte askotan egon bear izatea; baldin guk, bizitza onetan gaudenok, berai laguntzen ezpadiegu, Barkamenak irabaziaz, Mezak atera, edo entzunaz, edo beste edozein egintza on egiñaz. Oregatik, Garbitokiko anima guziak, baña batez ere, gure guraso, senide, aide, adiskide, ongile, ezagun, auzoko, ta erikoenak, gure zai daude, guri deiez daude, Job Doneak bere adiskideai esaten ziena, esanoz: *Erukitu zaitetzte nizaz, erukitu zaitetzte nizaz, zuek beintzat nere adiskideak, Jaunaren eskuak jo nauta.*

Elizako Guraso Done ta Jakintzuen iritzian, Garbitokiko sua, luéko sua baño beroagoa ta gogoágoa da. Garbitokiko oñazeak, luékoak baño aundiagoak eta ikaragaíagoak dira. Baña, Garbitokiko miñik aundiena, da, Jaungoikoa ikusi gabe egon beara. Jaungoikoa ikusteko zaletasun aundia euki; ta Jaungoikoa an ezin ikusi.

Garbitokiaren izatea oso bidezkoa da; Jainkozko zuzentasunari ta erukitasunari gisa berean oso egoki dagokiona; Lege Zaíean, Beíian, eta gure Eliz Ama Donearen bizitza guzian zintzo siñistu, euki, ta aitortu dana; ta guk ere gisa berean siñistu, euki, ta aitortu bear deguna.

Lege Zaíean, Judas Makabeoak, Gudarari Nagusi azkaía ta Jainkoskoa zanak, Jaunaren laguntzaz, Jaunaren eta bere Eriaren etsaiak, buíuka gogoíean, oso garaitu ondoan, ikusirik, buíuka gogor artan bere aldeko batzuk ere il zirala; berealaxe, etsaiari kendutako ondasunik edeíenak artu, ta Jerusalengo Elizara bialdu zituan, bere aldeko ílen alde Jaunari eskeintzak egiteko, esanaz: *Donea ta osasungaríia da ílen*

alde otoitz egitea, beren eruen barkamenerako.

Lege Beñian, Jesukristo gure Jaunak, dio, Giltzape bat badago, ta andik ez da inor ere irtengo, bere zorak oso ordaindu arteraño.

Bigarren gizaldian, Tertuliano jakintsuak bere garaiko etxekoandre alargun bati, zion: Zure senara zanaren animaren alde otoitz egizu, ta bere eriotzako *urteuena* negarez igaro zazu.

Laugarren gizaldian, Done Monikak bere eriotzako orduan, bere seme Done Agustini, ta berarekin an zeuden Apaiz agurgarriai, esaten zien: Nere soña nai dezuten lekuan lurperatu zazute; baña nere animaz Aldarean oroitu zaitezte.

Kaltzedoniano Eliz Batzarak, etxekoandre aberats baten jaiera asko goratu zuan, bere ondasunetatik zati bat, bere animaren alde eskeintzak egiteko utzi zuelako.

Azkenik, Trentoko Eliz Batzar Aundiak erabaki zuan, Garbitokiaren siñistea beaerkoa dala; ta edozein egintza on, baña batez ere Aldareko Eskeintza, Garbitokiko animentzat oso osasungaria dala.

Saiatu gaitezten, ba, Garbitokiko anima gaixoai laguntzen, Barkamenak irabaziaz, Mezak atera, edo entzunaz, Jauna artuaz, edo beste edozein egintza on egiñaz; anima oiek ainbat lasterren Zerura joan ditezen.

Orain ala egiten badegu, ta gero Garbitokira joan beara izaten badegu; Jaungoikoak sortuko ditu, noski, gure alde ere beste ainbeste egingo dutenak, guri Zerura joaten lagunduko digutenak. Eta baita ere baliteke, gure laguntzagatik Zerura joan diran anima zorionekoak, guretzat Jaungandik irixtea, gure erü guzien zorak bizi-iza onetan oso ordaintzea, ta emendik Zerura zuzen-zuzen joatea.

¡Zorionekoak gu orduan!

Eliz-barau ta aragi-uzteak

Buldadunentzat, amar dira *Eliz-barau* ta *aragi-uzte* egunak: Garizumako zazpi ostiralak; eta Pentekoste, Andre Mariaren Jasoera, ta Egubeñi (Gabon) aurreko eguna. Baña Egubeñi aurreko eguneko *baraua* ta *aragi-uztea*, Abenduko Garaietako (Tenporetako) larunbatera aurreratzen dira. Ta Egubeñi astelenean danean beriz, oso utzi egiten dira.

Barau utsa egiteko egunak, amalau dira: Garizumako zazpi asteazken eta zazpi larunbatak. Baña Larunbat Santu eguneko *baraua*, eguerdi arte bakarrik egiten da.

Aragi-uztea bakarrik egiteko egunak, iru dira: Pentekosteko, Agoñeko ta Abenduko Garaietako (Tenporetako) ostiralak.

Buldadunak, *barau* eguneko gosari ta apari ariñean, aragia, aragi-salda ta araiia izan-ezik, beste gañerako guzia artu dezaket.

Beartsuak ez dute Bulda artu bearrik,

barau ta *aragi-uzteai* dagozkien eskubi-deak irixteko.

Bulda-limosna, beaŕean dauden Eliza, Apaizgaitegi, Gaixotegi ta Beartsutegiai laguntzeko izaten da.

Ogeita bat urte bete ta irurogeigaŕenean sartu arteko kristauak, beartuak daude *barau* egitera.

Zazpi urtetik gorako ezagueradun kristauak, beartuak daude *aragi-uztea* egitera.

Nolanaiko aitzakiagatik *barau* egiten ez dutenak, eŕu astuna egiten dute egun bakoitzean.

Nolanaiko aitzakiagatik *aragi-uztea* egiten ez dutenak, eŕu astuna egiten dute egunaren buruan agindu ori austen duten bakoitzean.

Egunean bein bakaŕik janaz, *barau* egiten da. Baña, *barau* eguneko goiz-aŕatsetan artu leike, kristau zintzoak oi dutena: goizean 2 ontza inguru janari (62,50 gramos); aŕatsean 8 ontza inguru janari (240 gramos); zalantza dagoanean Aitorleari galdetuaz.

Igandetan ez da *barau* ta *aragi-uzterik*

egin bearik. Jaiegunetan ere ez, Garizuman izan ezik.

Barau utsa egiteko egunetan, *aragia* ta *añia* nastu ditezke.

BULDAGABEENTZAT

Barau-egunak: Igandeak izan ezik, Garizumako egun guziak; Lau Garaietako (Tenporetako) asteazken, ostiral eta larunbatak; Pentekoste, Andre Mariaren Jasoera, Done Guzien, eta Eguberi (Gabon) aurreko eguna.

Aragi-uzte egunak: Urte guziko ostiralak; Austerreguna; Garizumako larunbatak; Lau Garaietako (Tenporetako) asteazken eta larunbatak; Pentekoste, Andre Mariaren Jasoera, Done Guzien, eta Eguberi aurreko eguna.

ABESTIAK

Gure Jaunari

*Ogi Zerutik
Etoña,
Zu zera gure
Poz guzia.*

I

Bildots santua
Ara emen,
Luñeko gaitzak
Kentzeafen:
Sagrarioan
Nun dagoen,
Luña Zeruz
Bat egi en.

II

Misteriorik
Aundiena,
Jaungoikoaren
Oroimena:
Gozotasunik
Gozoena,
Gizonentzako
Dagoena.

III

Gauza guzien
Egilea,
Zeru ta luñen
Eregea,
Gure artean
Bizitza:
¡Ze zoriona
Dan gurea!

IV

Etzaitut begiz
Ikusitzen,
Baña bai gogoz
Det siñisten,
Sagrarioan
Nola zauden,
¡Jesus laztana
Gu maitatzen!

OARÁ.—Liburu ontako Abesti geienak ezagutuak dira Euskalerian. Baña auetako batzuk pixkat ofaztu egin ditugu.

V

Maitagaña
Maite zaitut,
¿Nork ez maitatu
Maite Jesus?
Maitatu eza
Nago damuz,
Naigabetua
Nere eruz.

VI

¡Ai! mila biotz
Banituzke,
Danak Zuretzat
Nai nituzke!
¡Ai! Jesusekin
Banintzake,
Maitez urtua
Banegoke!

VII

Olioa da
Argitzeko
Eritasunak
Sendatzeko,
Janari ere
Izateko:
Ala da Jesus
Guretzako.

VIII

Argi nazazu
Nere Jesus:
Senda nazazu
Janaritzuz:
Ase nazazu
Edaritzuz:
Ez jañen! utzi
Ni umezurtz.

*Or zaude, Jesus,
Aldarean:
Gorde nai zaitut
Biotzean.*

I

Zeruetako
Jaun aundia,
Egiñik gure
Janaria:
¡O Jesus maite
Maitatia!
Gizonentzako
Geiegia.

II

Ondasun danen
Ituñia,
Illizeko gure
Egaña:
¡O Jesus maite
Maitatia!
Zeru ta luñen
Egilea.

III

Ondo gabeko
Itxasua,
Zerutik jetxi
Zeran sua:
¡O Jesus maite
Maitatia!
Gizonarentzat
Pozgaña.

IV

¿Nola guk, Jauna,
Esker ori
Zugandik degu
Ba iritxi?
Zurekin guk nai
Degu bizi,
Eta Zerua
Irabazi.

I

Jaungoiko-Gizona,
Guretzat txit ona,
Aingeruen jana,
Zerutik gugana,
Etoñi zerana;
Zuri biotz bana
Eskeintzera gatoz, Jauna.

III

¡Ai! Jesus laztana,
Nor da ba gai dana
Eltzeko Zugana?
Jaungoikozko jana,
Guretzat emana;
¡Auxe bai da lana,
Nai aña ezin esana!

II

Jaungoiko berbera,
Zerutik luñera
Gizonen uñera
Zure etoñera
Oso da edeña;
Emendik auñera
Zorionekoak gera.

IV

O bildots apala,
Ain ixil-ixila,
Gurutzean ila,
Beti gure bila,
Zuri esker mila,
Zerura nadiila;
Ala gertatu dediila.

Abestu zaiogun Maitasunari,

Abestu Jaunari.

Jauna emen dago,

Eldu, agurtzaleak, agur zagun

Kristo Eroslea.

Bi aldiz { ¡Gora Zu, Kristo Jesus!
Zeru ta luñak onetsi zaitzela.
Gora ta gora Zu, Zeruko Eñege,
Maitasuna Zuri, Jaun laztana!

Gora Jesus maite-maitea.

Gora, gora gure Jaunaren Legea.

I

Negañez Sagrarioan
Dago Jesus laztana
Gurekin alaituko da
Goazen ba Beragana.

III

Zure begi malkotsuak
Gotoz gu legortzera
Zure Biotz samindua
Gozakaiz betetzera.

II

Negañez bai ortxe dago
Gure Jesus laztana
Gurekin alaituko da
Goazen ba Beragana.

IV

Umeak dakarkitzugu
Zuretzat biotz bana
Zurekin bizi gaitezen
Zurekin beti, Jauna.

V

Efiko umeak gatoz
Pozgañitzat Zugana
Bada Zuk esan zenduan
Betoz umeak ona.

Kristoren Anima

Kristoren Anima, ni donetu.
Kristoren Soña, ni askatu.
Kristoren Odola, ase nazazu.
Kristoren Saietzeko ura, ni garbitu.
Kristoren Nekaldia, ni indartu.
¡O Jesus ona! neri entzun.
Zure Zaurietan ni ezkutatu.
Zugandik alde egiten ez utzi.
Etsai gaiztoagandik gorde nazazu.
Eriotzako orduan neri deitu.
Ta Zugana joateko agindu.
Zure Doneakin beti goratu zaitzadan.

Alaxe.

Jaunartzeko Egitekoak

Siñismenezkoa

Jesus ona, siñisten det benetan
Nigatik zaudela Aldarean:
Zure Soña ta izate guzia
Arkitzen dala mai done ortan.

Apaltasunezkoa

Ez naiz ni gai, lotsaz esaten dizut,
Ez naiz ni gai, Jauna, Zu artzeko:

Baña, Jauna, etoñi nai badezu,
Gaitu nazazu, ondo artzeko.

Damuzkoa

Gaiztoa naiz, saldu zaitut, bai, Jauna,
Gaiztoa naiz, damuturik nago:
Ez ukatu Zure erukitasuna,
Zu zera ba Aita baño Aitago.

Ustezkoa

Zugan, Jesus, daukat uste guzia,
Zure deiak aditu nai ditut.
Ona zera, ondasun iturria,
Zuri beti jaraitu nai dizut.

Maitezkoa

Artzai Ona, nere maite-maitea,
Maitasunez urtua naukazu:
Orain arte saldu egin bazaitut,
Gaurtik aurrera Zurea nazu.

Gogozkoa

Zeruko Janari gozo-gozoa,
Aingeruen poz eta atsegiña:
Jetxi laster, jetxi nere gogora,
Atoz, atoz nere Jaungoikoa.



Jesusen Biotza

Jesusen Biotzari

*¡O Biotz gozo Jesusena,
Gure biotzen gozamina!
Jesus onaren Biotz ona,
Éruki zaitez guzaz, Jauna.*

I

Gugatik zaude
Eritua,
Gogor arantzaz
Arotua,
Iltze gogofez
Iltzatua,
Guzia miñez
Samindua.

II

Ainbesteraño
Nazu maite,
Biotza eskeintzen
Beti zaude:
Jesus maitea,
Bai nik ere
Zuri erantzun
Nai nizuke.

III

Zinduztenean
Gurutzetu,
Maitetasunez
Ziñan urtu,
Guzi-guzia
Odol-ustu,
Gu piztutzeko
Erioztu.

IV

Maitezko labe
Goritua,
Maitasunean
Su gartua,
Sutu ezazu
Gaur mundua,
Gizonen biotz
Izoztua.

*¡O Biotz gozo
Maitatia!
Zu Euskaldunen
Jaun aundia.*

I

Goazen, Kristauak,
Ain da luñean
Nola Zeruan
Agurgañi.
Goasen, guziok,
Agurtu zagun,
Goratu zagun
Biotz ori.

III

Suturik zaude
Beti gizonen
Naiz gaiztoenen
Onginaian.
¿Zergatik, Jauna,
Su-gar biziak
Dauzkatzu itxiak
Biotzean?

II

Zu zera, Jesus,
Maite-maitea,
Gure Jabea
Ta Jainkoa;
Gatozkizu gu
Naigabeturik,
Apal-apalik
Zure auñera.

IV

Zabal itzatzu
Gar eder oiek
Luñeko loiak
Eñetzeko;
Begira, Jauna,
Gaiztoen lana
Izaten dala
Gaitzerako.

V

Atoz, gugana,
Jesus maitea,
Zure eskeintza
Betetzera:

Zu zera gure
Jaun eta Jabe,
Bizi zu gabe
Ezin gera.

*Jesusen Biotz Santu
Gugatik odolustua;
Zeroñen maitasun sua
Gure bañuan piztu.*

I

Burniaz idikirik
Or zaude Biotz maitea,
Gu or sartzeko atea
Beti dago zabalik;
Zugana leiaturik
Eldu gera gogotsu;
*Zeroñen maitasun sua
Gure bañuan piztu.*

II

Nekepean lertuak
Gabiltza gizon gaixoak,
Begian negar malkoak,
Biotzak uratuak;
Baña Zuk gure miñak
Arinduko dituzu:
*Zeroñen maitasun sua
Gure bañuan piztu.*

III

Jesus, Zure Biotza
Argiz daukazu betea;
Ilunpetan da gurea,
Izotza bezin otza;
Zuganako bidea
Erakutsi zaiguzu:
*Zeroñen maitasun sua
Gure bañuan piztu.*

Bi aldiz {
¡Aufera! biotz siñistedunak,
¡Aufera! Euskaldun kristaua,
¡Aufera! bai, bilduñik gabe,
Kristo gurekin dijoa.

Begira gure ezaugaña
Begira zeñ edefa!
Ez da iñoiz eldu berdiñik
Zeru-goitik lufera.

Jesusen Biotz gozoa
Ludiaren erdian,
Erege Koroatua
Ikusi artean,
Geña beti, geña bizia
Bere etsai gogoñakin
Su ta gar badatoz ere
Inpernu beltzakin.

Bi aldiz {
Kristo izango da, Kristo izango da
Beti bai!
Euskaldunen Eregea,
Gure biotzen Jabea,
Beste Jaberik ez degu nai.
Entzun beza, entzun beza
Inpernuak!
Au da Jesusen ojua
Ni bai, ni bai
Erege izango naiz
Ludi guzikoa
Bai!

Bi aldiz {
¡Auñera! bai, ¡auñera! beti,
Kristau euskaldun siñisteduna,
¡Auñera! bai, bilduñik gabe,
Kristo gurekin dijoa.

*Gora, gora esan zagun,
Gora, gora Jainkoa;
Bera, bera deabrua,
Bera, bera biraoa.*

I

Armañ arturikan goazen
Etsaiaren bidera;
Gurutzea izango da
Euskaldunen indaña.

II

Gudara, bada, kristauk,
Gudara bereala;
Txiki ta aundi guziak,
Gudara bereala.

III

Gudak bildurtzen bagaitu,
Zuk, Maria, lagundu;
Bada gudariok beti
Zugan ustea degu.

Eguberietarako

*Gora ta gora Jesus,
Jaingo gizondua,
Belengo Estalpean
Guretzat jaioa.*

I


Ludia egin eta
Lau mila urtera,
Jainkoaren Semea
Gizon egiten da.
Gu zeruratzearen
Zerutik jetxi da,
Belengo Estalpean
Guretzat jaio da.

II

Josek eta Mariak,
Aingeru Doneak,
Erege ta Artzaiak,
Asto ta idiak,
Ezagaturik Jesus
Zeru-luñen Jabe,
Begiramen guziaz
An agurtzen dute.

III

Goazen, bada, gu ere,
Goazen Belenera,
Jesus gure Jabea
Antxe agurtzera.
Orain gogo guziaz
Agurtzen badegu,
Gero Zeruan beti
Ikusiko degu.



Lezoko Kristo Doneari

*Goazen, goazen guziok
Goazen bai Lezora,
Kristo Gurutzetua
Antxe agurtzera.*

I

Kristo gure Jaun maite
Guziz maitetsua,
Damu degu guziok
Zu naigabetua.
Etzaitugu geiago
Guk naigabetuko;
Barka zaiguzu jafen!
Zerura joateko.

II

Zure beña degu
Beti gau ta egun
Eta ez genezake
Zu gaberik iraun.
Zaindu gaitzazu, Jauna,
Indartu gaitzatzu;
Zugan Euskaleñiak
Biotza jañi du.

III

Beti degu bai, Jauna,
Guk zure beña,
Ta egiten dizugu
Pozez deadaña.
Zuk dakizu trukutzen
Bañuko negaña,
Ta biotzean jartzen
Gozakai edeña.

IV

Zugana jotzen dute
Mintsu ta eriak,
Beartsu ta abarats
Aundi ta txikiak.
Orain arte bezela,
Kristo maitatia,
Izan ezazu guzaz
Beti erukia.

*Lezon daukagu, Euskaldun onak,
Gure sendagai bakara:
Kristo, gure Jaun Gurutzetua,
Jaungoikoaren indara.*

I

Gaitzak makurturik zauzkana,
Naigabe ta neke zerana,
Atoz biotz argiz nigana,
Arinduko dizut miñ-lana.

II

Goñak emen dira ernetzen,
Baita itxuak ere argitzen,
Elbañi zeudenak zutitzen,
Legendunak beñiz garbitzen.

III

Emen gaiztakeri laña
Laster gelditzen da garbia;
Baita biotz epel nagia
Kristoren maitean gorria.

IV

Beso zabal zaude Jainko ori,
Agiri dituzu bost zauri:
Beraz on bazaigu, ixuri
Osasun laguntzak ugari.

Gurutze-Bidean abestutzeko

(Neurri ta soñu berezietakoak)

Nik bidegabetu zaitut,
Nere Jaun maitetsua;
Baña ikusi ezazu,
Jauna, nere damua.
Entzunda ontzat ar-zazu
Nere dei samintsua.

II

Nigatik odola
Ixuri dezu;
¡O Jaun biotz-bera!
Barka zadazu.

III

Nik Gurutze ofetan,
Jauna, zaitut iltzatu;
Baña, o Jesus Ona,
¡Afen! barka zadazu.

IV

Ez det, ez, geiago, Jauna,
Egingo gaiztakeririk;
Oso damuturik nago
Zu ofela ikusirik.

V

Negañez gaur, Jauna,
Gatoz Zugana;
Zure naigabeak
Gogoratzera.

VI

¡Ai! miña bider, Jauna,
Zaitut nik samindu;
Damu det biotzetik,
Nizaz erukitu.

VII

Zu, o Jesus maitea,
Gurutze ofetan
Iltzez gogor josirik
Iltzen ikustean;
Ziñez gofotatzen det
Nere pekatua,
Ta damu det benetan
Zu naigabetua.

VIII

Jesus gure Jaun maite
Guziz maitetsua,
Damu degu guziok
Zu naigabetua.

Etzaitugu geiago
Guk naigabetuko;
Barka zaiguzu ¡áren!
Zerura joateko.

IX

Josirik ikustean
Gurutze ofetan Zu,
Ufikariz biotza
¿Nork uratuko ez du?
Baita baleuka ere
Ari biurtua.
Damu degu guziok
Zu naigabetua.

Ama Mariari

*Ama maite Maria,
Egiguzu lagun,
Zure bitartez Jesus
Ikusi dezagun.*

I

Aingeruzko lirio
Txit zoragaña,
Usai gozozko lore
Zerutik jetxia;
Gorde nazazu, Ama
Guziz maitatia,
Ez dezadan zikindu
Ontasun garbia.

II

Zure ume maiteak
Ugaritutzeko,
¡Áren! eskatzen dizut
Lagun egiteko;
Atozte, bai, gazteak,
Zeruratutzeko,
Garbia deiez dago,
Argana joateko.

*Izar eder
Zoragaría
Zeru goian
Zera, Maria.*

I

Goizeko izaña
Ez da aiñ edeña,
Nola dan, Maria,
Zure Soñera.

III

Guzia edeña
Zera, Maria,
Sortzetik zerala
Garbi-garbia.

II

Eskeñez Zu zaitu
Jaunak apaindu;
Zeruak dituzu
Edeñez gaindu.

IV

Eskeñen itufi
Aitzen ez dana,
Guretzat zera Zu,
Ama laztana.

V

Lirio, dezuna
Usai gozoa;
Zugan arkitzen da
Zeru osoa.

*Nere Ama
Txit laztana
Ni zuretzat
Ar-nazu
Zuganatu
Ta zuzendu
Zeruratu
Nazazu.*

I

II

Goietako izar argi
Lausorikan gabea,
Sortu zīñan unetikan
Jaunak doaiz betea.
Maitetasun edeñaren
Ama maite gozoa,
Nik ustea Zugan daukat,
Uste oso-oso.

Negafezko erbestean
Asko gaude nekatzen,
Gure malko samintsuak
Asi zaite legortzen.
Begira zaiguzu, Ama,
Erukiz Zerutikan
Ikusi dezagun Jesus
Zuk lagun egiñikan.

III

Ementxe gauzkazu, Ama,
Zure itzal gozoan,
Gordeko gaituzulako
Uste oso-osoan.
Nai badezu, dio Amak,
Jesusekin bat bizi,
Pekaturako bideak
Bene-benetan utzi.

*Goazen, goazen guziok
Mariarengana,
Goazen, bai, eskeintzera
Biotz eder bana.*

I

Zu zera gure Ama,
Maria Garbia,
Izar eta eguzki
Guzien argia;
Aingeruen Efegin
Txit zoragaría,
Izan zaite euskaldun
Danen gidaria.

II

Zure semeak pozez
Gaur gera elkartzen,
Ta dizkitzugu gure
Biotzak ekartzen;
Ondo dakizu, Ama,
Zugan dana etortzen,
Zure altzoan pozik
Dezula jasotzen.

III

Argi guzien argi
Sutsua Zu zera,
Argatik zure bear
Gu arkitzen gera.
Printza bat bota zazu
Gure biotzera,
Seme zintzoak izan
Gaitezen auñera.

IV

Gaur efukia izan
Zazu guretzako,
Zure seme-alaba
Guzioentzako;
Zeruan lekutxo bat
Egizu geroko,
Il da zure ondora
Gu joan ordurako.

Zure Sortze Garbiaz
¡O Ama laztana!
Luñean zabaldu da
Poz eta atsegiña.

I

Erbesteturik geunden
Gu Barats gozotik,
Ebarekin galduak
Lenen-lenengotik:
Baña Zu ¡O Maria!
Sortu zeranetik,
Agertu da guretzat
Zerua zabalik.

II

Emen gaude, Maria,
Gu pozez beterik,
Emen zure oñetan
Zu maitatu nairik:
Gure eskabidea
Erukiz entzunik;
Ez begizu ukatu
Zure laguntzarik.

I

Ainbeste edertasun
Ta argi loretan,
Zerua ikusten da
Eliz onetan:
Zu zera Zeru
Ain pozgaña,
¡O Ama maite!
Mari Garbia!

II

Jakiñik zerala
Erukitsua,
Zabaltzen da gure
Biotz gaixoa.
Izaizu guzaz
¡Bai! erukia,
¡O Ama maite
Mari Garbia!

I

Agur Maria, Garbi-Garbia,
Eregin zoragaia;
Jaungoikoaren eta gizonen
Ama guziz maitatia.

II

Begira zazu, Ama maitea,
Nola gu bizi geraden;
Arisdua ta samintasuna
Besterik ez degu emen.

III

Neke artean negaiez eta
Aieska beti gaude gu;
Zure arpegi zoragaia,
Gugana itzuli zazu.

IV

Zugan daukagu, Ama laztana,
Gure biotza jaia;
Lagun zaiguzu, zaindu gaitzazu,
Izan guzaz erukia.

V

Negaiezko ibar onetatikan
Irtetzen geradenean;
Erakutsi egiguzu Jesus
Betiko zorionean.

I

Bi aldiz {
¡Aufera! Kristau siñistedunak,
¡Aufera! Mariarengana,
¡Aufera! bai, gaur eskeintzera
Danok biotz eder bana.

II

Begira an gure Ama,
Begira zeñ edeña:
Ez da jetxi Ama oberik
Zeru-goitik luñera.

III

Gure Ama biotzekoa
Ludiaren erdian,
Eregin koroatua
Ikusi artean,
Geña beti, geña bizia
Bere etsai gogoñakin,
Su ta gar badatoz ere
Inpernu beltzakin.

IV

Bi aldiz {
Zu izango zera, zu izango zera
Ama ¡bai!
Euskaldunen Ereña,
Gure erien atseña;
Beste Amarik ez degu nai.

V

Bi aldiz { Entzun beza, entzun beza
Deabruak,
Zure oñazpian zapalduak:
Gogor beti,
Gogor etsaiari,
Gora Maria, bai,
Bai!

VI

Bi aldiz { ¡Auñera! bai, ¡auñera! beti,
Kristau euskaldun siñisteduna,
¡Auñera! bai, gurekin dator
Ama Mari garbi sortua.

I

Agur, Jesusen Ama,
Maria maitea!
Agur, itxasoko izar
Dizdiatzailea:
Agur, Zeruko Eguzki
Pozkidaz betea,
Agur, pekatarien
Kaia ta estalpea.

II

Agur, gizonen Ama,
Zeruko Eñegiña,
Ama gozo txit maite
Maitezko labea!
Zugandikan joatea
Oso da samiña...
Agur, nere biotzeko
Poz eta atsegiña.

III

Agur, gure poza ta
Atsegin guzia,
Atsekabe danetan
Gozakai estia,
Agur, Maria eder
Txit zoragaña!
Ar-zazu biotza ta
Torizu bizia!

IV

Baña Zugandik alde
Biotzak ezin du:
Zuregana dijoa,
Zugan bizi nai du:
Garbi paregabea,
Onetsi nazazu:
Agur, Ama nerea,
Agur, agur, agur...





Lurdesko Andre Maria

*Agur, agur, agur Maria,
Gorde, gorde Euskalería.*

I

Zeru eta munduak
Zurekin pozturik,
Kanta-kantari daude
Benetan suturik.

V

Gure etsaiak dabiltz
Gu ondatu naian,
Baña Mariak ditu
Lertuko oñazpian.

II

Maria, sortu ziñan
Erugabekoa,
Donetasun guziaz
Apaindutakoa.

VI

Zera Jesusen urén
Maitagarriena,
Zeru eta luñean
Zoragarriena.

III

Oñazpian lerturik
Luzbeli burua,
Garaitu dezu, Ama,
Betiko inperua.

VII

Pekatuan beiñere
Ez gaitezen jausi,
Laguntza eske gaude
¡O Maria! Zuri.

IV

Zeru eta munduen
Poz eta atsegiña,
Zera biotz guzien
Jabe ta Erégiña.

VIII

Maite gorderik zaude
Gure biotzetan,
Artu gaitzatzu, Ama,
Gero zeruetan

*Euskaleritik gatoz
Pozik Lurdesera
Mariaren aurrean
Otoitz egitera
Siñismena sendotzen
Burnia bezela
Etsaiak botatzeko
Danak danak bera.*

I

II

Inpernua zapaldu
Mundu txarra astindu
Deabruen lagunak
Betiko garaitu
Jesus eta Mariak
Gaitzala gu zaindu
Euskaldun seme danok
Betiko nai degu.

Maite zaitue, Ama,
Kristau-erietan
Toki gozo bat dezu
Beren biotzetan
Baña ondo dakizu
Gozo ta benetan
Maitatzen zaituela
Euskal-erietan.

*Agur, agur, agur Maria,
Agur, agur, guziz garbia.*

Agur, agur...

*Gora, gora dezagun
Guziok batera,
Kristo ta Mariaren
Ezagungaria.*

I

Ama, zure semeok
Emen bildu gera:
Onetsi dezaiguzun
Gure ezaugaria:
Nai diogu Satani
Egin gogor geña:
Eta ludi guzia
Jañi zure aldera.

II

Geña soñuarekin
Inpernu guziak
Ez gaitu ikaratzen
Euskaldun semeak;
Ez da etsai gogoñen
Mañu ta burniak;
Il bear baldin bada.
Ona emen biziak.

III

Jesus da gure Eñege,
Zu gure Eñegiña;
Zuen ezaugaria
Garaitu eziña:
Su ta gañez arturik
Etsai beltzen gaña
¡Gora Jesus laztana!
¡Gora Ama Garbia!

*Zeruko Ama, izar-argia,
Zugana gatoz poz-pozik;
Gure biotzak artu itzatzu,
Zaindu gaitzatzu Zerutik.*

I

Gogora zazu, Ama on-ona,
lñoiz ere esan ez dala;
Zuri deituta, laguntza gabe,
lñor ere utzi dezula.

II

Biotz-biotzez Euskaleñiak
Beretzat zaitu autatu;
Oñegatikan, Ama laztana,
Eñi au Zuretzat artu.

*Zein edeña, zein gozoa
Zera, Ama nerea;
Zeruetan izar argi
Zelaietan lorea.*

I

Almentsua zera, Ama,
Zeru, mendi ta ibar;
Egin ni lufean lore,
Goi-urdiñean izar.

II

Izan zaite guretzako
Ama erukitsua;
Gu Zerura igotzeko
Luzatu zazu eskua.

III

Euskaleñiaren Jabe
Zera, Ama maitea;
Baita gure laguntzale
Ta Zeruko atea.

*Aguñ Erugabeko
Maria Garbia
Agur Zeruko izar
Lausorik gabea.*

Guziz edera zera,
Zenduan aditu,
Jaunagandik mundura
Ziñanean sortu;
Ez da bada erurik
Zuregan arkitu,
Adanen pekatuan
Etzera kutsutu;
Bertatik eguzkiak
Zinduan apaindu,
Ilargia oñetan
Zitzaitzun auzpeztu;
Zure burua izanak
Zuten koroatu,
Edertasun guziak
Zugan ziran bildu.

Ama Neketakoari

I

Agur Neketako
Ama lafitua,
Efegiña laztan
Negañez urtua.

*Ar-nazazu, Ama,
Seme damutua.*

IV

¡O Ama edeña!
Miñez asetua,
Ementxe naukazu
Negañez urtua.

Ar-nazazu...

II

Zure Biotzeko
Ezpata mintsua,
Sartu dizuna da
Nere pekatua.

Ar-nazazu...

V

¡O Ama maitea!
¡O Efukitsua!
Zerura joateko
Indazu eskua.

Ar-nazazu...

III

Oregatik nator
Oso damutua,
Nairikan garbitu
Anima loitua.

Ar-nazazu...

VI

Zu lagun zerala,
Ama maitetsua,
Ikusi nai nuke
Jesus gozotsua.

Ar-nazazu...

*Ama maitea
Nik Zurekin
Damuz nai nuke
Negar egin.*

Zure samintasunak,
Ama txit laztana,
Biotz mintsu ortatik
Betoz neregana.
Ni naiz zure Biotza
Mindu dizudana,
Nere gaizakeriaz
Jesus il dedana.



Arantzazuko Ama Garbia

Arantzazuko Ama Garbiari

*Arantzazuko Ama Garbia
Zeruko Eregin aundia;
Kendu pekatu danen arantzak,
Eman Jaunaren doaia.*

I

Agur zeruen edertasuna,
Arosa zuri-gofia,
Apaindurien lore bikaiñez
Jaungoiko berak jantzia,
Arantza artean arantza gabe
Arantzan gora jaikia!
Agur Maria, do aiz betea,
Doai beraren jargoia!
Arantzazuko...

II

Zu zeru-luñen maitagaritzat
Zorionean sortua,
Mundu onetan ekaitz artean
Gabiltzan danon portua;
Zu gure Ama, gure bizitza,
Gure biotzen gar-sua;
Zu Aingeruen zoragaría
Zu Santu danen korua.
Arantzazuko...

III

Izañaitz eta Aizgoñi baño
Gogoñagoa Zu zera,
Olatu año suleizetañak
Ezañitzeko luñera:
Beltzebu bera lotsagoñian
Makurtu dezu oinpera,
Igo zeralik pekatu gabe
Zeru guzien gañera.

Arantzazuko...

IV

Zure naia zan Aloñapeko
Arkaitz artean jartzea,
Doai edeñen lorategi bat
Usai zerukoz betea;
Ortik lenengo alda zenduan
Mejikotañen lorea,
Frai Zumañaga Indiatañen
Erakuslari trebea.

Arantzazuko...

V

Arantzazuko Ama Garbia!
Deiezka zure auñean
Ortxe egondu zan San Iñazio
Anai batekin gabean.
Arantzazuko Ama Garbia!
Daude deiezka luñean,

Zuri deiezka itxasgizonak
Ekaitz gogoŕen artean.

Arantzazuko...

VI

Ortikan zaude Euskaleŕiko
Seme gaixoen begira,
Gaur zure seme oien kaltezko
Etsaiak pranko badira;
Zugana gatoz, Ama maitea,
Zure mantupe argira,
Ixuri zazu zure indaŕa
Euskal biotzen erdira.

Arantzazuko...

VII

Zure laguntzaz, Ama Garbia,
Okendok zuan garaitu,
Zure laguntzaz Elkanok ere
Mundu osoa neuritu,
Zure laguntzaz Jabieŕek du
Sortalde luŕa argitu,
Zure laguntzaz onen goi-goian
Euskaleŕia arkitu.

Arantzazuko...

*Agur, agur, agur, Maria,
Agur, agur, guziz garbia.*

I

V

Aintza ta goramenak (1)
Ama Garbiari,
Arantzaren gañean
Agertu zanari.
Agur, agur...

Sendatu eziñeko
Zenbat gaixo mintsu,
Zure eskuarekin
Sendatu dituzu.
Agur, agur...

II

VI

Zu zaitugu guk, Ama,
Euskaldun eñian,
Laguntzale sendoa
Premia guzian.
Agur, agur...

Azkenik, ilak ere
Dituzu, bai, piztu,
Jaungoikoaren uren
Guzia al dezu.
Agur, agur...

III

VII

Kristau gefariantzat
Gordetzalea Zu,
Buñuketan Zerofek
Laguntzen diezu.
Agur, agur...

Ortxe ziñan agertu
Artzai mutilari,
Eñukia artuta
Euskaleñiari.
Agur, agur...

IV

VIII

Ekaitz gogor artean
Ta lañi aldian,
¡Zenbat gorde dituzu
Itxaso erdian!
Agur, agur...

Gizon da emakume
Zar eta gazteak,
Zu ikustera gatoz
Pozkidaz beteak.
Agur, agur...

(1) Gloria ta alabantzak.

IX

Aditu zazu, Ama,
Arantza-jargoitik:
Euskaldun siñismena
Gorde zazu zutik.
Agur, agur...

I

Aloñapeko arkaitz artean
Elor arantzan zauden Ama,
Euskaldunak gaur Zu laztantzera
Etoñi gera Zuregana;
Zure ondoan maiteko degu
Gure Jaungoiko Jesus ona,
Zure bitartez gero irixteko
Gure betiko zoriona.

II

Ludi ontako arantza beltzez
Gure biotzak zulaturik.
Zure laguntza eskatzen dute
Negar samiñez gaur urturik:
Gure bañuko samintasuna
Gozatu zazu, ene Ama,
Zapaldu itzatzu gure arantzak
Ta emaguzu zoriona.



Guadalupeko Andre Maria


Guadalupeko Andre Mariari

I

Goi urdiñean agertu da
Izar dizditzari bat,
Írutiratzen dituena
Luñeko ilun beltzak,
Izar eder ori,
Ama, zera Zu!
Eru egin baño len
Zerura nazazu.

II

Zerupean ez omen dago,
Ez iñun maitasunik;
Amak bere semetxoari
Dion bezelakorik.
Ama baño amago,
Bai, zerala Zu;
Zure seme zintzoak
Izan gaitezen gu.



Itziarko Ama Garbia

*Goiz-aratsetan
Ordu guzietan
Maria onetsi zagun
Zeruko izañari
Ama txit Garbiari
Gogoz abes zaiogun.*

I

Jaunagandik, Beragandik
Izan zīñan sortua,
Zapaltzeko, lertutzeko
Luzipeñen burua.

II

Ai! ze poza! guk biotza
Daukagu lertu nairik,
Gure Ama txit laztana
Zu zerala jakiñik.

III

Zeru eder guziz alai
Erdiaren erdian,
Zure jargoi eder ori
Arkitzen da goi-goian.

IV

Mila Aingeru zure inguru
Beti daude Zeruan,
Zu agurtu ta goratzen
Soñu gozo-gozoan.



Begoñako Andra Maria

Begoñako Andra Mariari

Bere buruntzaldian (1)

I

Jetxi zaiteze or goitik gugana
ederto apaiñik aingeruak;
geutar egiñik, Mariarentzat
alkartu daiguzan oiua.

¿Nok ustu deusue gaur zerua?
¿Zeiñek zerutu deusku luña?
Zeu zauguz zerutzaila, Maria:
Zeuretzat gure esker-aguía.

Eztau lurtañek Bizkaian artu
aginpeneko buruntzia.
«Eregiña beti izan daigula
Begoñako Andra Maria.»

Iñoz biotz-luñun loigafirik
gugandik oña baleioa,
egapean garbi gordeizue
guk opariko doetxoa.

(1) Begoñako Andra Mariaren Abesti auek «Coronación
Canónica de Nuestra Señora de Begoña» deitutako liburutik
artuak dira; lenengo biak Azkuñe jaunarenak izanik.

II

Maria gure Ama,
andra ta Eregiña.
¡Ai beti geure artean
egon al baziña!

Luzaro zaukez goian
zerua edertuten;
goian bego irudia,
zagoz zeurori emen.

Gora bear badozu
laztan orek igo,
gora gure biotza,
Gorputza emen bego.

III

Aingeru lagun kirmen zintzoak
gure malkoen gilzedunak,
ударик уда elaeak legez
zeru-luñetan zabilzanak:
egun au egun ilen artetik
egaz beioa zeuen aldran,
gure eguzkia itzaldu-ezkero
zeuen eguzkia dakusan.

Uñezko itzakaz ezafizue
zeruan Begoña-n izena,
bere aurrean makurtu daien
Serafinak buru lerdena.

Gaurko egunaren ufezko ogean
etzin danean eguzkia,
goi ta beatafok goretsi daigun
Begoñako Andra Maria.

Aldran

Bizkaitarik Bizkaian
dan goiz arafsetan,
eguzki-estai epelen
giro samufetan.
Aritz oritsuaren
abar aizetsutan
Begoña-ko Andrea
izango gu laztan.

Lenengo lototsa

Itxas-zabaleko urak
legoferatean
iñoz gelditu baga
oi dabilzanean,
geure arimen irudi
loi bakoak dira:
zeugana gatoz, Ama,
zagokuz begira.

Bigafen lototsa

Itxasoa ibaiturik
lotsor darabiltzu,
odei beltzak indarga,
gaixoak indartsu;

zurre oinpean dakuztaz,
Ama, goibeturik
ezten barik sugea
barea il ezinik.

Irugafen lototsa

Eta ni, Ama,
ez il bai ilgo
inok esan seme nazula!
munduko bagak
ia ondaturik
nauke indañez ul ula.

Nire begiak
egun argitan
dakuse gau motz itzala:
zeruetako
argi-ontzia
ez aztu Ama zareala.

Bigafen pīloa

Eba-ren seme erbestetuok
dedañez gatoz zugana:
ez gortu gure eskari oni,
Begoñako Ama laztana.

Lenengo lototsa

«Ama, oña or Zure
gerozko semea.»
Au esanda, Maria,
il iakun zeurea:

ta udako egunen ate
laban zabalkofak
legez zabaldu ziran
zeruko ate sofak.

Bigafen lototsa

Goietan ots eginda
Erospen-orduak,
Golgotaren buruan
zeugandik sortuak,
ega bako txoriak
abiati urtenik
gabiz, zeure egapean
zerutartu nairik.

Irugañen lototsa

Tokitxu bana,
Ama laztana,
or goian gertu bageuko,
danok pozañen
goratzeañen
gengokez noznai ilteko.

Eliz-ke zuri
edeña zeuri
ioatzun bide berean,
egaz beioa
biotz gaixoa
zeuga maiñotu artean.

I

Zeru ta luŕen Egilearen
Ama doatsu garbia,
Zugana dator Begoña aldera
Bizkaiko jente guztia.

II

Itxas-gizonak eta lurtañak,
Nekezale ta aberatsak
Zure oñetara gaur danak datoz
Opaten euren biotzak.

III

Jaungoiko altsuak egiñ zenduzan
Zeru luŕaren Eregin:
¡O! Zure oñetan Bizkaitar onak
Gaur zeinbat dogun atsegiñ!

IV

Eguzki, ilargi eta izafezko
Koroia dozu zeruan:
Gaur pozik gatoz Zuri imiñtera
Beste koroï bat munduan.

V

¡O! ¡Zeinbat bider neke artian
Ikusi gozuz zerutik,
Eta Zuk beti gure nekiak
Aldendu dozuz bertatik.

VI

Zuk beti, beti gorde izan dozu
Euskalefiko jentia;
Auferantzian Zeuk gorde gaizuz.
Ama Birjiña maitia.

B A T E R A

Ama maitia, gaur Zugana
Gatoz guztiok Begoñara.

Jose Doneari

*Gora, gora Jose Donea,
Gora, gora Zaindari aundia.*

I

Jesus eta Mariaren
Zaindari zintzoa;
Ta gisa bere-berean
Gure Zaindaria.

II

Jaunak donetu zinduan.
Jaiotza aurretik;
Ta beti ibili ziñan
Zeruko bidetik.

III

Jesusek eta Mariak
Maiteki-maiteki;
Begiak itxi zizuten
Iltzean gozoki.

IV

Lagundu zaiguzu, bada,
Orain Zeru-goitik;
Goratu zaitzagun gero
Jesusen ondotik.

*Lagun zaiguzu zuzen
Lurēan ibiltzen,
Eta gero Zeruan
Zuzen-zuzen sartzen.*

I

Doaiez apaindua,
Doatsua oso,
Mailarik goienera
Jaunak zaitu jaso:
Bere Amaren lagun
Eta Senar gozo,
Jesusek Zu nai zaitu
Beretzat guraso.

II

Zeruan Aingeruak
Dutena Efégin,
Emen lurēan zure
Emazte da egin:
Zeru edeña bera
Dan bezin atsegin,
Zuretzat da Nazaret
Ama-Semeakin.

III

Afosarikan ez da
Arantzarik gabe,
Guzietatik izan
Dituzu Zuk ere:
Zazpi Atsegin eta
Zazpi Atsekabe,
Belen eta Ijiño
Lekuko dirade.

IV

Zure izerdiakin
Jana irabazi,
Ta ardura aundiaz
Dezu Jesus azi:
Iritxiaz Zerutik
Doaiak ugari,
Aingeruak bezela
Zera beti bizi.

V

Soñaz lanean eta
Bañuaz otoitzen,
Jainkozko gizona da
Ontan ezagutzen:
Bizitzan Jesusita
Amari laguntzen;
Ildakoan Zeruan
Sartu zera zuzen.

VI

Gure Zaindaritzale
Jaunak jañi zaitu,
Añisku guzietan
Gu gaitzatzun zaindu:
Gure bizitza emen
Dediñean aitu,
Zurekin gaitzezela
Zeruan arkitu.

Antonio Doneari

*Gora, gora Antonio Donea,
Gora ta gora Ongile aundia.*

I

Benetan Jauna goratu zenduan;
Jaunak ordañez saritu zinduan;
Berberak emen pozik laztanduaz
Eta Zeruan goi-goian jañiaz.

II

Īlak piztuta, gaixoak sendatu;
Gaizkiñak bota, galduak arkitu;
Gaitzak kenduta, onak ugaritu;
Gu goratzeko beti zaude gertu.

III

Jaunak eskeñez oso apaindua;
Afigafilari afigafia;
Zeru goi-goitik laguntzen diguzu;
Zerura beti zuzentzen gaituzu.

*O Antonio Doitsua,
Lagun zaiguzu Zerutik;
Maite zagun biotzetik
Gure Jaun eta Jainkoa.*

I

II

Gu erbestetuak gera	Etsaiak izutzen dira
Negafezko lur onetan;	Zure izena aditzean;
Eri onen eskaria	Ta ufutiratzen dira
Entzun zazu Zerutikan.	Zu aurrean ikustean.

III

Antonio zerutara,
Otoitz egizu benetan;
Galdu gabe bat bakara,
Sartu gaitezen Zeruan.

*Zure laguntzaren bila
Gatoz beti zugana
Entzun ba gure otoitza
Antonio laztana.*

I

Guri laguntzeko Jaunak eman dizkizu
Doai eder-edeñak, esku zabala;
Ez dezake ukatu ;o biotz biguña!
Artzen dezun guzia guretzat dala.

II

Zure aúera etortzen geradenean
Baúua jaritzen zaigu gozo-gozoa;
Badakigulako emango diguzula,
Eskatzen dizuguna oso-osoa.

III

Maite ditugun zerak galtzen baditugu,
Zuri eskatuaz arkitzen ditugu;
Galdutako doaia iritxi zaiguzu,
Zerura zuzen joaten lagun zaiguzu.



Migel Donea

Migel Doneari

*Migel Donea, zu zera gure
Ta Aingeru danen Gidari;
Pekatariok geranon alde
Otoitz egin ba Jaunari.*

I

Etsai artean gabilta emen;
¡Aren! begira lufera;
Begira nola Luzbel gaiztoa
Uferatzen dan gugana;
Begira nola griña okeñak
Alkartzen diran batera;
Atoz gugana; gure indaña,
Migel Donea, zu zera.

II

Atoz, bai, Migel, Zeru urdiña
Ifistaturik egaka;
Urezko lumak astindurikan,
Atoz lasterka lufera;
Gure ta zure etsai Beltzebuk
Guda gogoña daukota;
Garaitu zazu, len bezelaxe,
Zure espataz sastaka.

III

Begira zazu, nola dabilen
Gure Eliz Ama laztana;
Estutasunik aundienetan
Otoizka dator zugana;
Etsai gaiztoak estali dute
Luñeko inguru dana;
Ta leoi zañak bezela dabiliz
Iruntzi nairik gizona.

IV

Zu ikustean, Migel Donea,
Bazatozela luñera;
Izuturikan amilduko da
Zalapartaka Leizera;
Zorigaiztoa, su-gar artean,
Oñoaka egotera;
¿Nor zera, esanaz, oñen indartsu?
¿Oñen gogoña, nor zera?

V

Zure laguntza garaile eske
Gatoz, bai, Migel, zugana,
Gure ondoan zu bazaitugu,
Betor edozein gugana;
Zeran ezkerro bear danetan
Gure Gidari laztana;
Zuzen gaitzatzu, Migel Donea,
Zuzen gaitzatzu Zerura.

VI

Aralar-mendi otsaundikoa!
Aralar-tontor goitia!
Zure inguruan jaikitzen dira
Zuri agurka, Andia,
Urbaza, Aizkofi, Aloña-mendi,
Gorbea oso goitia;
Zure oñak laztantzen ari da
Araxes ibai alaia.

VII

Aralařetik, Migel Donea,
Arduraz zaude begira,
Jaungoikoaren da Euskaldunen
Alderdi maite-maitera;
Gurutzeduna, zu bezela, dan
Euskaldun eři erdira;
Zure laguntzaz, Satanas beti
Garaitu degun tokira.



Aralarko Migel Donea

*Migel, Migel,
Migel gurea,
Gorde, gorde,
Euskaleria.*

I

Goazen Euskaldunak
Aralafera,
Migel Aingerua
An ikustera.

II

Aralar mendira
Igo gaitezen,
Migel ikusteaz
Ez gera aspertzen.

III

Aitortu dezagun
Bere aurrean,
Guk nai degula il
Siñismenean.

IV

Euskaldun luñean
Giñaden jaio,
Gure siñismena
Bizirik dago.

V

Aurrekoetatik
Degu ikasi,
Zintzo-zintzo eusten
Lege onari.

VI

Ez degu nai autsi
Kristau legea,
Jakituri gaiztoz
Gaur nastutzea.

VII

Alpeñik Satanas
Saiatuko da,
Ez degu autsiko
Siñismen ona.

VIII

Aralartik Migel
Begira dago,
Luzbelek zatirik
Ez du izango.



Ignazio Dono

Iñazio Doneari

Iñazio,
Gure Zaindari aundia,
Jesusen Lagundia
Zuk bildu
Eta indartu dezu,
Ez da, ez, etsairik
Jañiko zaitzunik
Iñolaz auñean
Gaurko egunean;
Naiz betor
Luziper deabrua
Utzirik inperua. (Beñiz)

Zure Lagundia
Beti da bildur gabe,
Bere Jaun ta Jabe
Da Jesus aundia,
Garaitu ditu
Zure Lagundiak
Etsaiak.
Ez dauka Elizak,
Ez Euskaleñiak,
Ez dauka bildurik
Iñungo aldetik.
Iñazio or dago,
Beti indartsuago,
Dauka Lagundia
Su-gafez betea,

Guda-guda nairik,
Ezaugaria zabalik,
Gau ta egun guk
Guziok pakea dezagun,
Beti gau eta egun.

Garbitokiko Animai

*Jesus, Zuri dizugu
Eskatutzen benaz;
Eruki zaitezela
Anima oiezaz.*

I

¡O! guzaz azturikan
Bizi zeratenak,
Gogora itzatzute
Guk dauzkagun miñak;
Biotza biguntzeko
Dirade onenak.

II

Inguraturik gauzka
Osoro su-gańak;
Entzuten ezpadira
Or gure negańak;
Aditu itzatzute
Beintzat deadańak.

III

Guraso eta ume,
Senar-emazteak,
Anai eta ańeba,
Zar eta gazteak,
Zuei deiezka gaude
Anima gaixoak.

IV

Gu emen su-gańetan
Lańi eta estu,
¿Eta zuek azturik
Luńean jolastu?
Min aundiagorikan
Ińork ere ez du.

V

Lenago asko maite
Ginduzten biotzak,
Batzuk oso azturik,
Besteak ain otzak;
Guretzat oiek dira
Ezpata zoñotzak.

VII

Eskatzen deguna da
Egiten eñaza,
Otoitza, Aitortzea,
Jaunartzea, Meza;
Bakoitzak al duena
Orain egin beza.

VI

Emen gaude ordaintzen
Pekatuen zoñak,
Eta ala ere zuen
Belañiak goñak;
¿Nola zuen biotzak
Dira ain gogoñak?

VIII

Barkamenak ordea,
Barau, naiz limosna,
Guri lagundutzeko
Guzia da ona;
Bakoitzak egin beza
Ondoen zaiona.

IX

Oroi zaitezte guzaz
Orain gau ta egun;
Emendik irtetzea
Iritxi dezagun;
Zeruan izateko
Gero gure lagun.

*Artu itzatzu, Jesus maitea,
Ontzat gure eskaria,
Eta anima gaixo aiei
Idiki laster Zerua.*

I

Guzaz eruki zaitezte zuek
Guraso eta umeak,
Emazte onak aditu bitza
Bere senaŕaren deiak,
Emen dauzkagu su-gar artean
Oñaze guziz aundiak:
¿Nun dira zuen onginaia ta
Maitasunezko eraiak?

II

Begira, bada, begira ondo,
Ikusi gure negaŕak;
Eta aditu erukiturik
Gure deadar samiñak.
¡Ai! ze samiñak diran guretzat
Emengo suaren gaŕak!
Zuen otoitzak, egintza onak,
Zaizkigu guziz beaŕak.

III

Meza Donea, Jauna-artzea,
Baraua eta limosna,

Gogo onakin egin ezkerro,
Dana da guretzat ona.
Gure ongile izan danari
Jaunak emango diona;
Bere laguntza luñean eta
Zeruetan zoriona.

Misioetarako

*Atoz, pekataria,
Atoz Elizara,
Jaungoikoaren itza
Gogoz aditzera.*

I

Pekatuen neuria
Bete ez dezazun,
Aditu Jaungoikoak
Zer esaten dizun.

III

Pekatuàn oean
Etziten bazera,
Noski an inpernuan
Esnatuko zera.

II

Ez egon pekatuan,
Ez egon luzaro,
Damu izan ez dezazun
Alpeñikan gero.

IV

Urterik asko Jaunak
Zuri eman dizkitzu,
Eta danak pekatuz
Zuk bete dituzu.

V

Misio santu onetan
Ontzen ezpazera,
Inpernuko zugaitzat
Geldituko zera.

VII

Misioko garaia
Galdu zutelako,
Daude, bai, inpernuan
Gaur negañez asko.

VI

Auxe dezu Jaunaren
Azkenengo deia,
Eta agertzen dizu
Zeruratu naia.

VIII

Alakorik zurekin
Gertatu ez dedin,
Bertatik bear dezu
Aitortzea egin.

*Egizu Zuk, Maria,
Gugatik erregu,
Eriotzako orduan
Ez gaitezen galdu.*

I

Pekatoriok Ama,
Garbia, zaitugu:
Zugan gure biotza
Guk ipintzen degu.

Egizu...

II

Zure lzen santuak
Lagundu bekigu:
Zure Biotz onean
Ustea guk degu.

Egizu...

III

Besterik inor ez da,
Ta bai, Maria, Zu,
Ama izan ezkerro
Garbia gelditu.

Egizu...

IV

Jaungoikoaren Ama
Eginik zakusgu:
¡Aren! zure semetzat
Ezagu gaitzatzu.

Egizu...

V

Zure Semeak gaitu
Zerutik bilatu:
¿Nola Zuk naiko dezu
Gu gaitezen galdu?

Egizu...

VI

Pekatu egin degu,
Ortaz degu damu:
Lagun zaiguzu, Ama,
Zerura gaitzatzu.

Egizu...

VII

Alpeñik inpernuak
Artuko du damu:
Orain, gero ta beti
Zureak gera gu.

Egizu...

VIII

Zerurako bidea,
Maria, zera Zu:
Ara joango danak
Bila bear zaitu.

Egizu...



Limpiasko Kristo Donea

*Jesus gure Jaun maite
Guziz maitetsua,
Damu degu guziok
Zu naigabetua.*

I

Josirik ikustean
Gurutze oretan Zu,
Urrikañiz biotza
Nork uratuko ez du?
Baita baleuka ere
Ari biurtua. *Damu...*

II

Burutik oñetara
Gorputz eder ori
Zauri bat egiñikan
Dezu guzi ori.
¡A! zorigaiztokoa
Nere pekatua! *Damu...*

III

Oñak, esku ta albo
Burniz zulaturik,
Bizkaña zigortuta
Dana zatiturik:
Aranza gogorakin
Josirik burua. *Damu...*

IV

Ainbeste min gogoréz
Eririk zerala,
Artzai bat ardiaren
Ondoren bezela;
Gure bila zabilta
Erukiz urtua. *Damu...*

V

Jesus, Zu gure bila
Ta ¿guk iges Zuri?
Gure bear zerala
Zu, Jauna, dirudi.
¡O gizon esker-gabe.
Gaizto zoratua. *Damu...*

VI

Jauna ¿zer galtzen dezu
Gu ezak galtzean?
Gu gabe Zu etziñan
Betiko guzian?
Zerk zaduzka gugana
Oren itxutua? *Damu...*

VII

Ezin egin gentzake
Zu gabe batere,
Ez da inñolaz artu
Arnasa bat ere:
Zu ondasun guzien
Sustrai ta burua. *Damu...*

VIII

Au onela jakiñik,
Bizi izan naiz ni,
Beti uñin Zugandik
Beti zure igesi:
Ongi nendukan luñak
Noski itxutua. *Damu...*

Jaungoiko Santua,
Jaungoiko Indartsua,
Jaungoiko Ilezkoña,
Gaitz guzietatik
Gorde gaitzatzu, Jauna.

Jaungoikoak gorde zaitzala, Eregiña,
Erukitasunezko Ama,
G—Bizitza, gozotasun eta gure ustea,
Jaungoikoak gorde zaitzala,
Zuri deiez gaude
G—Ebaren ume erbestetuok;
Zugana gaude naigabez
Samintasun eta negañez

G—Negañezko ibar onetan.
Ea, bada, gure Andrea,
Eta Bitartekoa,

G—Itzuli itzatzu gugana
Zure begi erukitsu oiek,

G—Eta erbeste onen ondoan
Erakutsi egiguzu Jesus
Zure sabelak emandako
Onetsia.

GG—¡O Biotz bera!

GG—¡Ama laztana!

Ama maite-gozo Maria,
Otoitz egizu gugatik
Jaungoikoaren Ama ona,

GG—Iritxi dezagun
Bildurikan gabe

G—Jesukristok agindua
Amen, Jesus.



Artzai Onaren Ama

Artzai Onaren Amari

*Ama, Ama, ez utzi
Satanen mendean;
Euskaldunak iduki
Zure babesean.*

I

Ementxe gaude, Ama,
Zuri agurka gu;
Begi oiek gugana •
Itzuli itzatzu.

IV

Begiratu diguzu,
Ama, oraindaño;
Begiratu zaiguzu
Azken orduraño.

II

Zure bear gerade
Beti bezela gaur;
Eta ez genezake
Zu gaberik iraun.

V

Ama, zure altzoan
Iduki gaitzatzu;
Etsai gogor zitalak
Ez gaitzan ondatu.

III

Etsaien begi utsak
Gaituzte bildurtzen;
Zugandiko laguntzak
Poztutzen, alaitzen.

VI

Zaindu gaitzatzu orain
Bizitza onetan;
Gora zaitzagun gero
Betiko bizitzan.

- | | |
|--|---|
| 1. Pekatariak deitzen
Dizu bereala,
Gogoratzean bere
Ama Zu zerala. | 4. Pekatuak kenduta
Egiguzu argi,
Bizi izan gaitezen
Apal eta garbi. |
| 2. Zu, guzien artean
Artzairik onena,
Ardi guzi-guziak
Maite zaituena. | 5. Bide gaiztoetatik
Aldendu nazazu,
Ta nere ibilteak
Zerura zuzendu. |
| 3. Zure artaldetikan
Aldendu banintzan,
Orain zurea nai det
Beti-beti izan. | 6. Zuri nere gogoan,
Soñan ta bizia,
Zuretzat izan bedi
Ni naizen guzia. |

*Jesus eskatzen dizut
Nik barkazioa;
Lotsaz beterik nator
Guziz damutua.*

I

II

Noiz arte bear dezu
Egon pekatuan
Ikusirik zaudela
Ia inpernuan?
Damuz begiraturik
¡Añen! animari,
Bigun bedi, kristaua,
Biotz gogor ori.

Jesus agertzen zaitzu
Dana uraturik,
Odola dariola
Gurutz-iltzaturik.
Ni naiz ¡o Jesus ona!
Zure boñerua;
Damu det biotzetik
Zu naigabetua.

III

Emen naukazu, Jauna,
Negañez urturik.
Nere erú guziaz
Oso damaturik.
Jesus, eskatzen dizut
Biotz-biotzetik
Onetsi nazazula
Gurutze ortatik.

I

Esnatu zaite, pekataria,
Orain da, orain ordua
¡Begira, gaixoa,
Asaŕe Jainkoa!
Ordu danean egizu
Jainkoarekin pakea.

II

Begira, gaixoa,
Zure pekatua.

III

Begira, gaixoa,
Eriotz ordua.

IV

Begira, gaixoa,
Inpernuko sua.

V

Begira, gaixoa,
Betiko galdua.

VI

Begira, gaixoa,
Jauna asaretua.

*Etsaiak izutzen naute,
Dardaraz nator Zugana;
Altzoan artu nazazu,
Amatxo guziz laztana.*

I

Ez naiz izan ona Zuretzat,
Askotan zaitut lañitu;
Jaungoikoa asare dago,
¡Ama, nizaz erukitu!

II

Gurutzean Seme maiteak
Gu zaitzeko esan dizu;
Ar-gaitzatzu zure mendean,
Gu zer geran badakizu:

III

Griña txarāk, bide okeñez,
Gaitzera beti garama;
Baña zuzen nai degu ibili:
Izan zaitez gure Ama.

Kristo gure Erege
Agurtu dezagun;
Zeru-luren Jabe
Aitortu dezagun.

I

Siñismen batean
Danok ernai,
Zureak gera gu
¡O Jesus, bai!
Zureak gera gu
¡O Jesus, bai!

II

Jesusen etsaiak
Betoz noiz nai,
Armak eskuetan
Gauden ernai;
Armak eskuetan
Gauden ernai,
Jesusekin goazen,
Goazen alai.

III

Egiaz badezu
Jesus maite,
Beraren Legean:
Bizi zaite;
Beraren Legean:
Bizi zaite,
Bide txarretatik
Alde, alde.

IV

Jafi bedi Jesus:
Biotzetan,
Bereak bagera
Gu benetan;
Bereak bagera
Gu benetan,
Ikusiko gera
Zeruetan.

V

Jesusen izena:
Gaur goratu,
Bere zoriona
Bai, zabaldu;
Bere zoriona
Bai, zabaldu;
Toki guzietan
¡Gora Jesus!

*Kristorenak,
Kristorenak gera,
Kristorenak betiko
Izango gera.*

I

Kristorenak ziraden
Gure gurasoak,
Baita ere euskaldun
Ben-benetakoak.

II

Kristorenak gerade,
Bera da Nagusi,
Aren mendean beti
Guk nai degu bizi.

III

Birao txarik etzan
Ez Euskaleñian,
Itz egiten zanean
Euskera garbian.

IV

Jesusek esaten du
Zeruratutzeko,
Gurasoen esanak
Ondo egiteko.

V

Egiten bagerade
Neska-mutil txarrik,
Gogor artuko dira
Guraso zabañak.

VI

Ez degu nai bileraik,
Ez dantza loturik,
Ez mutil naskagañi
Ta neska txororik.

VII

Neskatxa eta mutil,
Giz-emakumeak,
Iluntzerako gorde
Ditzala etxeak.

VIII

Kristo ta Ama Maria
Dira guretzako
Maiterik maiteenak
Gaurtik auferako.

Gure Egitekoak

*Zuri gure biotza
Eskeintzen dizugu,
Jesus, Zureak beti
Izango gaituzu.*

I

Inpernuko izkuntza
Da birao beltza,
Ta biraolaria,
Deabru berbera.

II

Lan egiten dutenak
Jai edo igandean,
Lapur zitalak dira
Jaunaren aurrean.

III

Jesusek esaten du
Zeruratutzeko,
Gurasoen esanak
Ondo egiteko.

IV

Gurasoak zoñoski
Artuko dirade,
Umeak gaizki azi
Baldin badituzte.

V

Animaren ondasun
Ta doai guziak,
Kentzen die kristauai
Edan geiegiak.

VI

Ez degu nai bileraik,
Ez dantza loturik,
Ez mutil naskagari
Ta neska txororik.

VII

Zeruan inor ere
Ez diteke sartu,
Ostutako guzia
Ordaintzen ezpadu.

VIII

Gezua ta itz zikiña
Esaten duenak,
Iltzen ditu bere ta
Lagunen animak.

IX

Neskatxa eta mutil,
Giz-emakumeak,
Iluntzerako gorde
Ditzala etxeak.

Latinezkoak

Pange, lingua, gloriosi
Corporis mysterium.
Sanguinisque pretiosi,
Quem in mundi pretium
Fructus ventris generosi
Rex effudit Gentium.

Nobis datus, nobis na'us
Ex intacta Virgine,
Et in mundo conversatus,
Sparso verbi semine,
Sui moras incolatus
Miro clausit ordine.

In supremæ nocte coenæ
Recumbens cum fratribus,
Observata lege plene
Cibis in legalibus,
Cibum turbae duodenæ
Se dat suis manibus.

Verbum caro, panem verum
Verbo carnem efficit;
Fitque Sanguis Christi merum:
Et si sensus deficit,
Ad firmandum cor sincerum
Sola fides sufficit.

Tantum ergo

Tantum ergo Sacramentum
Veneremur cernui:
Et antiquum documentum
Novo cedat ritui:
Praestet fides supplementum
Sensuum defectui.

Genitori, Genitoque
Laus et jubilatio,
Salus, honor, virtus quoque
Sit et benedictio:
Procedenti ab utroque
Compar sit laudatio. Amen.

